

hiruka

205. zenbakia
2024ko martxoa



23. KORRIKA Martxoaren 14tik 24ra

Harro Uribe Kosta

ZABALDU EUSKARAREN ATEA



DIRULAGUNTZAK

Honakoak euskaraz jartzen badituzu, gure hizkuntza zaintzeaz gain, zure negozioa ere sustatzen duzu.



Errotuluak



Olanak



Biniloak



Terrazak



Pertsianak



Ibilgailu komertzialak

INFORMAZIO GEHIAGO



HIZKUNTZA AHOLKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

688 665 112
gehi@getxo.eus

GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11
euskara.zerbitzua@getxo.eus
www.getxo.eus/euskara



Getxo
bizi ezazu

Bizkaia
foru udalburua
diputación foral



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Korrika batzordeak, Uribe Kostan
- 10 Herriak
- 20 Hirudika: inauteriak eskualdean
- 24 Berbetan: Iñaki Gaminde, euskararen bariazioan aditua
- 28 Uribe Kostako agenda
- 29 Mundukatuak
- 30 Lehen/orain eta uribitakora
- 32 Marian Becerro, psikologoa
- 33 Eva Guerrero, sortzaile eszenikoa
- 34 Iritziak eta horoskopoa
- 36 Ikerne Mendieta, twerk irakaslea
- 37 Ibilki mendi-taldea, mendizaletasunaren bitartez gizarteratu
- 38 Faceguk: Nahikoa al da emakumeen presentzia eremu publikoan?
- 39 Usategi
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Aitormenak: Ane Lindane
- 43 Zozketak



6
Herriz herri, batzordez batzorde, Korrika



11
«Oso barneratuta dago emakumea sufritzeko jaio dela»



25
«Euskere aldatu da, bizimoduak be aldatu direzelako»



37
«Bizikidetzeta eta elkar ezagutzea da gure gakoa, beste barik»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta eta Udane Ladislao.

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga eta Aroa Sotelo Velasco

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Uxune Iriondo, Aitana Hernandez, Paula Amieva, Arantza Gutierrez eta Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

GLrari Etxea aurten geure

UXUNE IRONDO URBISTAZU Bilgune Feminista



Izen hori jarri diogu Getxoko Emakumeen Etxeari. Urtetako ametsa, guraria, aldarri etengabea, gauzaten ari garela esatera ausartuko naiz. Udalak Benturillena kalean zituen lokaletan dago GLrari Etxea. Obra handia egin da emakume askok bilera ugaritan adostu dugunera egokitzeko.

Zelan kudeatu, antolatu eta erabiliko den erabakitzeko prozesua, ordea, ez da samurra izaten ari: prozesu parte-hartzaileak, txostenak, gogoeta-taldea, talde eragilea, trantsizio-taldea...

Gu, behintzat, zintzoak izan gara gure aldarrietan, gure iritzietan, gure prestasunean eta eskuzabaltasunean. Deitu gaituztenean han izan gara, horrelako espazio feminista beharrezkoak direlako. Guk deitu diegunean, idatzi diegunean, galdetu diegunean, berri, isiltasuna izan da erantzuna, egia-erdia edo gezurra ere tarteka.

Iruditzen zait norbait ez dela garbi jokatzeko ari. Udala oztupo larregi jartzen ari zaigu. Zeinek bera nolako, besteak uste halako.

Honaino helduta, GLrari Etxea aurten geure egingo dugula hitzematzen dizuegu. Benetako espazio feminista, elkartu, elkar ezagutu, zaindu eta errespetatu, saretu, sortu eta ekinez Getxo bestelakoa izan daitekeela amestu eta gauzatzera goaz. Bai horixe!

Emakumeon agenda

AITANA LOPEZ HDEZ. Lan-zuzenbidean aditua



Egunotan, feminismoak pertsona guztien bizitzak hobetuko dituela (eta hobetu behar dituela) entzuten da. Baina, egia al da? Barkaidazue, baina ez. Feminismoa emakumeen emantzipazio eta liberaziorako mugimendua da. Munduko biztanleriaren erdiak jasaten duen opresioarekin amaitzea du helburu. Horrek gizonen pribilegioak desagerraraztea dakar; gizon guztienak.

Deseroso? Espero dut baietz. Feminismoak ez du gizonen erosotasuna helburu. Zuek orain dituzuen gune, diru eta denbora librearen parte bat kendu nahi dizuegu, gureak baitira. Gure eskubideak nahi ditugu, eta, gogorra iruditu arren, hori da bide bakarra. Zenbait gizon, nahiz eta hau argi izan, feminismoaren alde egingo dute, haien pribilegioen kontra. Akaso benetan sinisten dutelako, Angela Davisek zioen moduan, emakumeak pertsonak garela. Gizon horiei: ongi etorri.

Baina benetan arduratzen nauena da gu geuk, emakumeok, hau argi izatea: feminismoaren agenda emakumeon agenda dela. Horrek ez du esan nahi feminismoa ez denik intersektionala izan behar, jakina. Baina, zalantzak dituzuenean, pentsa ezazue inork ez lukeela esango antikapitalismoak Ana Botinen bizitza hobetu beharko lukeenik.

Puntua eta kontrapuntua **Korrika**

Euskara helburu



*Bi urtero bezala
helduko da zita,
lekukoak egingo
diguna bisita.
Getxon ikusi arren
argazki polita,
geroko euskarari
begira jarrita,
mingainarekin egin
dezagun korrika.*

**IMANOL
URIA
ALBIZURI**
Algorta/Getxo

*Mingaina da motorra,
euskara helburu.
Nahiz hizkuntzak pasatu
hamaika apuru,
geroa datorkigu
euskaraz, seguru!
Bi urtean behin legez
gaitezen batu gu,
aurten Korrikan elkar
ikusiko dugu!!!*

**DANIEL
DE MIGUEL
AVECILLA**
Getxo



Joseba Aranguren **Morotxo** Kantxa Kirol Moda

«Kirol ekitaldiak babesten jarraituko dut, baina ikusle gisa hemendik aurrera»



Algortako Kantxa Kirol Moda dendak bere atek itxiko ditu Joseba Arangurenen erretiroagaz. Hala, herriagaz emandako urratsak birgogoratu ditu jabeak.

TESTUA: NAHIA MARTINEZ GONDRA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Joseba Aranguren *Morotxo* aski ezaguna da herrian azken 30 urteak Algortako erreferentziatzeko kirol arropa dendan lanean egoteagatik: Kantxa Kirol Moda. Egindako bideari erreparatu, *Morotxok* nabarmentzen du herriko merkataria gisa lan egitea polita izan arren, gogorra ere izan dela. Denbora tarte honetan, aldaketa «handia» nabaritu du bezeroen erosketa-ohiturei dagokionez. Azaltzen duenez, iraganean, tokiko kirol dendek euren artean lehiatzen zuten soilik, baina, azken urteotan, hainbat multinazional handik ireki dituzte saltokiak inguruan. Hori dela eta, deitoratzen du zaila izan zaiola negozioagaz jarraitzea: «Ezin gara haiekaz lehiatu, ezinezkoa bihurtu da. Gainera, azken urteetan egoera larritu egin da online salmentagaz».


Halaber, Kantxa Kirol Moda denda fisikoa hainbatetan lekualdatu da. Aldaketa horiek esperientzia «apur bat traumatiko» gisa gogoratzen ditu *Morotxok*, izan ere, bi sozietatetik banatu behar izan zen, gauzek ez zutelako guztiz ondo funtzionatzen. Zailtasunak zailtasun, baina, guztiagaz aurrera jarraitu du.


Salmentez gain, Kantxa Kirol Moda herriko kirol talde, ekitaldi eta lasterketa askotako babesle ere izan da. Baiez-tatu du ekintza horiekaz poztasun pertsonal handia sentitzen duela, nahiz eta ekonomikoki guztiz errentagarria ez izan. Hemendik aurrera, babesle gisa laguntzeari utziko dion arren, argi du beste era batean kirol horiek bultzatuko dituela, hala nola ekitaldietara ikusle gisa joaten.

Bere erretiroa jakinarazi duenetik, dendak harrera bikaina izan du. Alabaina, onartu du ez zuela espero: «Oraindino hilabete batzuk egongo gara likidazioa egiten, baina asko harritu gaitu etorri den jende kopuruak». Halaber, erretiroaren osteko planei dagokionez, besteei laguntzen jarraitzeko asmoa du: «Behar duen pertsoneri lagundu gura diet, Gobernu Kanpoko Erakunde bitartez, adibidez». ◀

Korrika: herriz herri, batzordez batzorde

PETOAK	HERRIA	LEKUKO ALDAKETA	ORDUA
1698	LEMOIZ – ANDRAKA	BI-2120 km23	05:24:28
1699	LEMOIZ – ANDRAKA	BI-2120 km24	05:30:58
1700	GORLIZ	BI-2120 km25	05:37:20
1701	GORLIZ	BI-3154 km1	05:43:50
1702	GORLIZ	Trebiñu kalea, 13	05:49:50
1703	GORLIZ	Itsasbide kalea, 40	05:56:11
1704	PLENTZIA	Areatza kalea, 21	06:02:27
1705	PLENTZIA	Plazatxo, 0	06:08:47
1706	BARRIKA	BI2704 km23	06:14:38
1707	BARRIKA	BI2704 km24	06:21:08
1708	URDULIZ	BI2704- Plentzia Urduliz errep., 1	06:26:40
1709	URDULIZ – LAUBIDE	Aita Gotzon, 1	06:33:49
1710	URDULIZ	Goieta kalea, 32	06:39:40
1711	URDULIZ	Aita Gotzon, 24	06:46:49
1712	SOPELA	Sabino Arana, 75	06:53:07
1713	SOPELA	Sabino Arana, 1	06:59:18
1714	SOPELA-LARRABASTERRA	Iberre, 2	07:06:27
1715	BERANGO	Sopela errepidea	07:10:48
1716	BERANGO	Sabino Arana, 28	07:17:10
1717	BERANGO	Simon de Otxandategi etor., 45	07:23:15
1718	GETXO-ALGORTA	Salsidu etorbidea, 70	07:29:02
1719	GETXO-ALGORTA	Oilarretxe, 31	07:35:32
1720	GETXO-ANDRA MARI	Maidagan, 17	07:42:14
1721	GETXO-ALGORTA	Aingeru etorbidea, 11	07:48:05
1722	GETXO-ALGORTA	Sarikobaso, 4	07:54:15
1723	GETXO-ALGORTA	Telletxe, 9	08:01:20
1724	GETXO-ALGORTA	Iparbide, 6	08:07:50
1725	GETXO-NEGURI	Txopoeta, 42	08:13:20
1726	GETXO-ROMO	Txopoeta, 12	08:19:50
1727	GETXO-ROMO	Amaia etorbidea, 28	08:24:38
1728	GETXO-AREETA	Kale Nagusia, 21	08:30:59
1729	LEIOA-LAMIAKO	Soplador errotonda	08:37:56
1730	LEIOA-TXOPOETA	Langileria, 34	08:44:20
1731	LEIOA-UDONDO	Lehendakari Agirre plaza, 2	08:51:13
1732	LEIOA-ELEXALDE	Iparragirre etorbidea, 17	08:57:20
1733	LEIOA-ELEXALDE	Sabino Arana Hiribidea, 67	09:03:44
1734	ERANDIO-ASTRABUDUA	BI647 km1	09:08:56
1735	ERANDIO-ASTRABUDUA	Etxegorri kalea, 2	09:14:08
1736	ERANDIO-ALTZAGA	Ribera de Axpe etorbidea, 9	09:20:19
1737	ERANDIO-ALTZAGA	BI711 km32	09:23:49
1738	ERANDIO-ALTZAGA	Ramon Rubial kalea, 2	09:29:44
1739	ERANDIOGOIKOIA	Altzaga Goikoa-Kukularra errotonda	09:35:27
1740	ERANDIOGOIKOIA	Altzaga-Erandiogoikoa-Arriaga plaza	09:41:18
1741	ERANDIOGOIKOIA	Altzaga Goikoa errep., 86	09:46:30
1742	ERANDIOGOIKOIA	Avanzada errep. 31 (eskola aurea)	09:51:03





Bi urterik behin, Korrikak milaka herritar, eragile eta elkarte batzen ditu euskararen aldeko ekimen erraldoi horren antolaketan. Hori dinamizatzeaz, antolatzeaz eta gizarteratzeaz arduratzen dira hainbat euskaltzalek osatzen dituzten herriz herriko batzordeak. Ezagutu itzazu hemen Uribe Kostan Korrika antolatzen duten taldeetako kide batzuk.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA**
 IRUDIAK: **KORRIKA • HIRUKA** ▶

M

artxoaren 14tik 24ra bitartean, Irunetik Baionara, Euskal Herri osoa zeharkatuko du Korrikaren 23. edizioak, eta, beste behin, euskararen aldeko kontzientziazio- eta aktibazio-ekimenak ehunka herri, auzo eta txokotik zabalduko du bere mezua.

Korrika AEK-k antolatu arren, prozesu kolektiboa ere bada, milaka herritarrek borondatez beraien ahaleginak batzen bai-

tituzte herriz herri egiten diren batzordeetan. Uribe Kostan hainbat dira konpromiso hori hartu eta Korrikaren berri emateko ekimenak antolatzen dituztenak, besteak beste, kilometroak margotuz eta herritarrek mugiaraziz. Askok urte andana daramatzate zeregin horretan, eta, aitortzen dutenez, sentimendu handiagaz hartzen duten konpromiso bat da.

Zeregin horretan hainbat urte daramatzan horietako bat da Mikel Agirre Garabieta lemoiztarra. Kontatu duenez, hasiera batean, Ikasleen Gurasoen Elkartek antolatzen zituen Korrikaren inguruko ekintzak; horiei Andraka, Armintza eta Urizarreko jai-batzordeak eta Udala batu zaizkie, eta horien artean erosten dituzte kilometroak. Agirrek kontatu du batzordeetara elkarte horietako ordezkariak eta herritarren bat ere joaten dela, hala ere, jarduerak antolatzeko herritar gehiagoren parte-hartzea eskertuko luketela dio. Aurten, Korrika oso goiz sartuko da eskualdera, eta Lemoizko Andraka auzotik etorriko da Maruri-Jatabetik, martxoaren 21eko 05:24ak inguruan. Agirrek aurreratu duenez, «aurrekoetan bezala, lau katu egongo gara Lemoizko hiru kilometroak egiteko, baina, gero, Gorlizera eta Plentziara joango gara disfrutatzerara».

Korrikak Gorlizko eta Plentziako kale nagusiak zeharkatuko ditu puntatik puntara, eta hortik ere goiz igaro arren, jende askok parte hartuko duelakoan dago Egoitz Uribarri udalerrir horietako batzordeko kidea. Bera AEKko irakaslea da Jentilbaso

euskaltegian, eta pozez hartu du udalerrri bietako batzordea berriz ere osatzea lortu izana, euskaltegiko ikasle, irakasle eta herriko euskaltzaleakaz. Beraiek martxoaren 15ean egingo dute Korrika gizarteratzeko jaialdia, eta haien helburua da «herriko eragile eta elkar-teak inplikatzeko eta herritarrak aktibatzea».

Plentziarrek 06:08an hartuko dute lekukoa Plazatxoan, eta, hortik, Urdulizera bidean joango dira BI-2704 errepidetik; bidetik, Barrikako lurak ere zeharkatuko dituzte. Asier Garcia Zabala hainbat urtetan aritu da Korrikako kontuak antolatzen bertan, besteak beste, kilometroak errepidean margotzen. Orain, herritarrak, jai-batzordeak eta Barrika Futbol Eskolak ere osatzen dute batzordea, eta horiek ere antolatzen dituzte ekintzak. «Barrika herri txikia izanik, ez gaude asko antolaketa-lanetarako, eta Euskaldiarako elkartzeko garenok ere aritzen gara Korrika antolatzen. Orain, nahiko talde majoa osatzea lortu dugu», azaldu du barrikotarrak. Aurten, Korrika Barrikako herrigunetik igaroko ez den arren, Garciak jakinarazi du Udalak kilometroa erosi duela eta horren berri emateko jaialdia egingo dutela.

EUSKARA ETA ASKOZ GEHIAGO. Urdulizen, Korrikak erdigunea zeharkatuko du eta, euskararen aldeko mezuz gain, lan-gatazka baten berri emateko ere baliatuko dute. Josu Iratzagoria Jauregik azaldu duenez, «beren lanpostuagatik borrokan ari diren Mecanerrek langileek beti parte hartu izan dute kilometro bat erosten, eta, aurten, kilometro-banaketan leku berezia eman gura izan diegu beraien borrokari ikusgarritasuna emateko». Iratzagorriak dioenez, «hainbat urte daramatzat koordinatzaile edo militante moduan, baina, gaur egun, zinegotzia ere banaiz, beraz, batzordea-

«Niretzat, euskarak batu egiten gaituen gauza bat da, eta Korrika da horren elkar-puntua. Euskarak munduaren beste ikuspegi bat ematen digu, eta hori zaindu eta bultzatu behar dugu. Gainera, nire gurasoek ere parte hartzen zuten, eta horren alde egiten irakatsi ziguten»

JURDANA ALTONAGA ROYO
BERANGOKO KORRIKA BATZORDEA

«Guretzat, Korrika antolatzea lan izugarria da, tentsio handia izaten dugu eta, batzuetan, txarto pasatzen dugu; baina merezi du, gero, bueltan, asko ematen digu. Jendeak eskatzen diozunari nola erantzuten duen ikustea itzela da»

IRATXE MARTA
LAMIA AEK EUSKALTEGIKO
IRAKASLEA

ren eta Udalaren arteko lotura-lanak egiten ditut». Halaber, batzordekideak adierazi du Korrikak betidanik izan duela parte-hartze handia Urdulizen, «eta argi dago herria handitzen doan heinean gero eta jende gehiagok parte hartzen duela; nabaritzen da bizitzera etorri diren asko euskaldunak direla».

Urdulizetik, Korrikak Sopelara egingo du salto. Bertako batzordeko kide den Lizar Begoñak zera azaldu du: «Batzordeak bertakook osatzen ditugu, hurbileko jendeagaz lan egin ahal izateko; horrez gain, nik militantiagatik ere egiten dut, sinisten dudalako Korrika garrantzitsua dela jendea mugiarazteko eta euskarak bere lekua eta oihartzuna ere behar dituelako». Beragaz batera, batzordean militantiatik eta euskararen alorrean lan egiten duten beste herritar batzuk daude, «baita Sopelako Kuadrillak bezalako elkarteetako kideak ere». Otsailaren 25ean, Sopelan Korrikaren berri emateko ekitaldia egin zuten, eta, horretarako, eskualdeko artisauen azoka, zirkukalejira eta animazioa izan zituzten. Horrez gain, *Josetxu* AEKko lankide ohiari omenaldia ere egin zioten, «berak asko eman baitzuen euskararen alde».

Egungo lehena argiek Berangora bidean harrapatuko dute Korrika, udalerriri horretan 07:10ak inguruan sartuko baita. Jurdana Altonaga Royo batzordekideak kontatu duenez, «duela hainbat urte emakume-talde batek antolatzen zuen Korrika Berangon, baina aurreko edizioan egiteari utzi zion, eta orain talde berria osatu dugu». Kantaguneko, dantza-taldeko edo IGEko kideak dituzte batzordean, eta azpimarratu du beraien asmoa dela «deialdi zabala egitea, edonork parte har dezan». Hurrengo urtera begira, Udalgaz elkarlana areagotu nahiko luketela ere iragarri du Altonagak. Berarentzat, Korrika euskara-

23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

ren alde egiten den ekimen oso berezia da, familiaratik jaso zuena, «eta taldean ere oso barneratuta daukagu herriaren gauza bat dela, euskararen alde guztioi batzen gaituena».

«BADAGO BORONDATEA». Korrikaren lekukoa 07:30 inguruan hartuko dute Getxon, eta Algortako kaleetatik hainbat kilometro egingo ditu aldapan gora eta behera. Lohitzune Rodriguezk eskualdeko Korrikako koordinatzaileak jakinarazi du Algortan ez dagoela batzorderik, Egizu, Bizarra Lepoan eta ALBE bezalako euskara elkarteek betetzen dutelako Korrikaren dinamizazio- eta aktibazio-lana. «Hain herri handia izanda, zaila da antolatzea; hala ere, badaude horretarako prest dauden herritarrak, badago borondatea, eta, behar bezalako lanke-ta eginez gero, batzorde emankor bat sortu daitekeela uste dugu», dio Rodriguezek.

Aitzitik, Itzulbatzeta/Romon aspalditik dago batzordea, eta horretako kide da Begoñe Eguskiza. 30 urte baino gehiago daramatza AEKn, eta orain arte laguntza-lanak egiten bazituen, aurten batzorde horretako arduraduna izatea egokitu zaio. Dioenez, «batzorde horrek ibilbide luzea du, eta berezko dinamika dauka aspalditik; «nik koordinazio lanak besterik ez ditut egin». Batzordeetan bost edo sei herritar egon ohi direla eta norbanako modura joaten direla kontatu du Eguskizak, «euskaltzaleak eta erromozaleak dira». Gaineratu du Korrikak auzoan ikusmin handia sortzen duela eta jende askok parte hartzen duela: «Aurkezpena oso polito atera zen, jendea hurbildu zen eta urdaiazpikoarekin eta guzti ospatu genuen. Korrikak lan handia suposatzen du, baina, erantzuna ikusten duzunean, konturatzen zara denak bere fruituak ematen dituela».

Getxotik atera, eta Lamiakotik sartuko da Korrika Leioara, udalerrri horretako hainbat

«Beren lanpostuagatik borrokan ari diren Mecanerrek langileek beti parte hartu izan dute kilometro bat erosten, eta, aurten, kilometro-banaketan leku berezia eman gura izan diegu beraien borrokari ikusgarritasuna emateko»

JOSU IRATXAGORRIA
URDULIZKO KORRIKA BATZORDEA

kaleetatik bere mezua zabaltzeko. Tokiko Lamiaria AEK euskaltegiko irakasle Iratxe Marta da hango batzordeko dinamizatzailea, eta honela deskribatzen du beraien zeregina: «Korrika etorri aurretik herria kultur eskaintza txiki batekin dinamizatzen dugu». 30 urte daramatza AEKn, 13. Korrikan hasi zen egitasmo horren antolaketa-lanetan, eta, azpimarratu duenez, Leioako batzordea oso egonkortuta dago: «Leioan ez dago euskara elkarterik, beraz, guk betetzen dugu hutsune hori, eta erantzun ona izaten dugu herriko eragile eta elkarten aldetik. Korrika baliatzen dugu herria astintzeko». Leioan, Korrikaren aurkezpenean askotariko 28 eragile inguru batu zituztela gogoratzen du, eta euren artean euskaragaz lotutako erronka bat botatzea proposatu zietela elkarri.

Leioa utzi eta Korrika Udondotik Erandiora sartuko da. Astrabudua eta Alzaga auzoak hartzen dituen batzordeko kidea da Mikel Zarate, eta, bera bezala, Bertsoneko eta herriko beste hainbat elkarteko kideek osatzen dute hori. Dioenez, «15 bat kide izango gara, eta Euskaraldia eta horrelako ekintzak egiteko bazten gara. Hala ere, Korrika da jende gehien erakartzen duena, hori antolatzeak harrotasun moduko bat sortzen duelako, zerbait berezia da». Erandion, hurrenez hurren, martxoaren 9an eta 16an egingo dituzte Korrika aurkezteko jaialdiak, Alzagan eta Astrabuduan.

Eskualdeko azken kilometroak Erandio-goikoan egingo ditu Korrikak, eta, beste urte batez, Nuria Amorrortu Juezen etxe aurretik izango da horietako bat. Amorrortu auzo horretako batzordeko arduraduna izan da azken urteotan, baina bera 16 urte zituenetik dabil horretan sartuta. «Sentimendu handiarekin hartzen dudana gauza bat da; niretzat ikaragarria da herria horrela parte hartzen ikustea», adierazi du. Auzo horretako batzordea Txorie-rikoak dago sartuta, eta, Amorrortugaz batera, Auzokoa Herriko Elkarteko kide bat eta «betidanik euskalgintzan egon den emakume bat» daude; hala ere, ekintzak antolatzeko orduan, IGEkoen eta Emakatz elkarteko nesken laguntza ere izaten dute. Kilometroak banatzeko orduan, aldiz, hainbat enpresa eta elkartek parte hartzen dutela azpimarratu du, «beraz, ez dugu arazorik izaten kilometroak betetzeko. Arazo gehiago izan ohi dugu tar-teak banatzerakoan, denek nahi dutelako herri-gunean lekukoa eramana».

10:00etan, gutxi gorabehera, Korrikak eskualdea utziko du, eta Euskal Herriko beste hainbat udalerritako batzordeen borondatezko lan anonimoari esker, bere ibilbidea jarraituko du, otsailaren 24an Baionan amaitu arte. ◀



Getxo Horma-irudia

Xake murala ordezkatzeko lanak abiatu dituzte

Horma-irudia duen eraikinaren fatxadan aldordioak jarri dituzte, zuriz margotu eta Miren Larrea lehiaketaren bigarren deialdiko proposamen irabazleari bide emateko.

Getxoko Udalak higiezinaren jabeakaz sinatutako kolaborazio-hitzarmenari jarraituta, gaur egun ondoko plazari izen ez-ofiziala ematen dion Xake izeneko murala ordezkatzeko asmoz, fatxada «horma-atal zuri» bihurtzeko lanak abiatu dituzte. Horretarako, aldarmia muntatu dute, ondoren, Miren Larrea mural-lehiaketan aukeratutako proposamenak gaur egungo irudia ordezkatzeko beharrak abiatzeko.

Udal-iturriek zabaldu dutenez, murala egiten hasi aurretik, gaur egun dagoen estaldura «konpondu eta berritu» egingo dute, «azken pintura-geruzaren euskarri izango dena». Horretarako, ingurumena errespetatzen duten material jasangarriak erabiliko dituztela azpimarratu dute, «aire zabalean oso erresistenteak direnak eta zikintzeko joera txikia dutenak».

BIGARREN SAIKERA. Bigarrenez egin du Kultur Etxeak mural-lehiaketaren deialdia, lehenengora aur-



Aldarmia jarri dute fatxadan daborduko.

keztutako 16 proposamenak ukatu ostean, fase teknikoak eskatutako puntuazioa gaintu ez zituztelakoan. Proposamenak maiatzaren 6ra arte aurkeztu ahal izango dira, eta herritarren iritzia jasoko dituztela iragarri du Udalak; gogoratu behar da herritar asko murala mantentzearen alde daudela. ◀

Getxo Feminismoa

Talde feminista aurkeztu dute Itzubaltzeta/Romon

Itzubaltzetako Emakume Asanbladak (IEA) utzitako hutsunea bete guran, Itzubaltzetako Talde Feminista sortu dute auzoko hainbat emakumek. Joan den martxoaren 2an aurkeztu zuten taldea, Ibar Nagusien Etxean eta, bertan, auzoko mugimendu feministaren bilakaeraren errepaso egin zuten, 1970eko hamarkadatik gaur egunera arte feminismoaren alorrean lan egin duten kide ohien eskutik.

Oihane Zelaia talde feminista berriko kideak HIRUKAri azaldu dionez, pandemiaren ostean lan egiteari utzi zion IEAk, eta, horren ondorioz, hutsune bat egon da auzoan feminismoari dagokionez. Berbarako, azaroaren 30eko greba feminista orokorraren antolatetarako, greba batzorde mistoa osatu zuten eta horren osteko balorazioa egiterakoan, aipatutako ondorioetako bat izan zen talde feminista bat behar zela Itzubaltzeta/Romon, «aurretiko lanketarik ez zegoelako egon». Hala, ordutik, auzoko hainbat emakume batu eta talde berriari forma ematen hasi ziren, martxoaren 2ko aurkezpenean jendaurrean gorputzu dena. Gaur egun 10 emakumez osatutako taldea da, belaunaldiartekoa: «Gazteenak 26 urte ditu, eta, zaharrenak, 70».

Orain, hilaren 7an, Ibar Nagusien Etxea elkarteko kideakaz batera, *En buenas compañías* filma proiektatuko dute, eta Garbiñe Mendizabal auzokideagaz solasaldia egin ere. Hurrengo egunean, martxoaren 8an, inguruko gainontzeko talde feminista askok egingo duten bezala, manifestazioa egingo dute auzoan. Santa Eugenia plazan jarri dute hitzordua, arrastiko 19:00etan. ◀

SAN
NIKOLAS
IKASTOLA
SANIKOLAS.EUSIZATOA

ERDIGUNEAN
ZU
ERDIGUNEAN

ikastolenkartea

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

94 430 54 78
ikastola@sanikolas.eus

Facebook Instagram YouTube

Susana Gonzalez Endometriosis Euskadiko lehendakaria

«Oso barneratuta dago emakumea sufritzeko jaio dela»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Martxo endometriosiaren hilabetea da, oraindino sendabiderik ez duen gaixotasuna ikusarazteko hilabetea. Zehazki, martxoaren 23a da mundu mailako ikusgarritasun handieneko eguna aurten eta, zapatu horretan, hainbat eraikin horiz argituko dira EAE osoan. Susana Gonzalez EndoEuskadi elkarteko lehendakaria da, eta txikitatik tabu eta ezjakintasun askogaz bizi izan du endometriosisa. Horregatik, elkarte horren bidez beste pertsona batzuei laguntzen dihardu gaur egun.

Endometriosisa hileko bakoitzagaz hazten doan ehuna da, endometrioaren antzekoa dena baina ez dena zehazki berdina. Gehienbat pelbiseko barrunbeetan kokatzen den arren, organo desberdinetan hazi daiteke; birketan edota garunean, esaterako. Horregatik, Gonzalezek ez du gaixotasun ginekologikotzat hartzen, baizik eta multisistemiko gisa, betiere hormonon mende dagoena. Sintoma ohikoenak hurrengoak direla azaldu du: «Mina hilekoan, sexu-harremanak mantentzerakoan, giharretan eta txiza egiterakoan, beherakoak, antzutasuna, gernuko infekzioak eta elikadura intolerantziak, besteak beste».

12 urtetatik hileko oso mingarriak bizi ditu Gonzalezek: «Nire amak ere horrelako minak zituenez, normalizatu egin nuen. Psikologikoki oso zaurgarria bilakatu nintzen, jasan behar nuen gaitz bat zela barneratu nuelako». Jendeak, hala ere, ez zuen uste mina horrenbesteko zenik, eta «ahul» gisa irudikatzen zuten. 21 urtegaraz fibromialgia zuela esan zioten, neke kronikoa, eta 36 urte bete arte ez zioten endometriosiaren diagnostikoa eman: «Larrialdiko ebakuntza egin zidaten eta peritonitisa nuela esan zidaten. Hala, krona izan zitekeela ere uste zuten. Nire ahizpak endometriosisa zuenez tematu nintzen horren frogak egiteko, eta, azkenean, hori zela ikusi zuten». Hala, gaur egun, nahiz eta menopausia izan, tratamendurik gabeko urteetako ebakuntzen eraginez min kronikoakaz jarraitzen du Gonzalezek: hesteetan, ureterretan, pelbisean...

Horregatik, EndoEuskadiko aldarrikapenak dira diagnostiko goiztiarra eta osasun publiko hobetzea. Gainera, Osakidetza endometriosisa duten emakumeak artatzeko gida bat sortzea eta betetzea nahi dute kideek.



EndoEuskadiko lehendakaria da Susana Gonzalez. HODEI TORRES

Ikasleentzako bajak

EndoEuskadiko ama askoren eskakizuna da ikasleek bajak hartzeko eskubidea ere izatea. Izan ere, endometriosisa eta hileko mingarriak dituzten ikasleek ezin dituzte langileek bezalako bajak eskatu, eta, ondorioz, ezin dute ikasturte akademikoa ganoraz bete.

Gonzalezek azpimarratu du egun ez dagoela ia ikerketarik gaixotasun honen inguruan, «nahiz eta 10 emakumetatik batek duela kalkulatu duten». Gainera, ez dago oraindino ere tratamendu zehatzik, izan ere, pertsona bati ondo datorkiona, beste batentzako baliteke aproposa ez izatea. Hala ere, adierazi du oso lagungarria dela bizitza osasuntsu bat eramatea: «Elikadura ona, ariketa fisikoa edo bizitza aktiboa izateak asko hobetzen du gure bizi-kalitatea, batez ere, diagnostikoa goiztiarra denean». Horren ondorioz, argi du hilekoaren eta sexuaren inguruko heziketan sakontzea beharrezkoa dela. Nabaritu du dibulgazioan aurrerapen handiak egin direla, gaur egun endometriosisa duen edozein emakumek diagnostikoa izan dezakeelako elkarreterara edo mediku espezializatuengana jotzen badu. «Duela 10 urte ez zegoen espezialistarik, ezta zerbitzurik ere. Interneten ere ez zen informazioa ageri», nabarmendu du. Hala ere, oraindino asko dago egiteko, eta argi du ikerketa gutxi egin direla emakumeek bizi duten gaitza delako. «Endometriosisa erabat gutxietsita dago gaur egun ere, eta oso barneratuta dago emakumea sufritzeko jaio dela», deitoratu du.

Horregatik, EndoEuskaditik behar duen edozein pertsona laguntzeko prest daude: «Arreta medikoaz gain, funtsean gaixotasunari buruzko informazioa zabaltzeko eta fase guztietan ezagutzeko aukera ematen dugu, paziente aktiboak eraikitzeko eta erabakiak eza-gutzatik hartu ahal izateko». ◀

Leioa Sutea garaje batean

Sei bizilagun artatu dituzte Leioan izandako sute batean



Erretako garajea, kanpotik ikusita. AROA SOTELO

Dozena bat ibilgailu erre ziren joan den otsailaren 28an, goizaldeko 04:15ak inguruan, Lamiakoko etxebizitza bateko garajeetan piztutako sute batean. Larrialdi zerbitzuek etxebizitza hustu eta sei pertsona artatu behar izan zituzten kea arnasteagatik, eta horietako bat Urdulizko ospitalera ere eraman behar izan zuten zauri arinakaz.

Sutea Leioako Langileria kaleko 14A, 14B 12 eta 10. zenbakietako -1 solairuko garajeetan gertatu zen, Lamiako auzoan.

Artatza, Derio eta Uriosteko parkeetako suhiltzaileek itzali zuten sutea, eraikinari kalteak eragitea eragotziz, hala ere, bertan zeuden dozena bat ibilgailu erabat kiskali ziren eta garajeko instalazioak ere kalteak jasan zituen.

Sutearen eraginez bizilagunak urik gabe geratu zirenez, Leioako Udalak Sakoneta kiroldegiko instalazioak eskaini zizkien dutxatzeko, eta aseguruakaz harremanetan jartzeko laguntza eskaini zien ere. ◀

Leioa Jose Miguel Barandiaran institutua

Hezkuntza Sailak 22,8 milioi euro bideratuko ditu eraikin berrirako

Sakoneta auzoan kokatuko den azpiegitura berriak DBH eta Batxilergoko ikasleak hartuko ditu. Instalazioak 40 ikasgelatik gora izango ditu.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak iragarri du 22.804.795,58 euro (BEZ barne) inbertituko dituela Jose Miguel Barandiaran BHI ikastetxeren eraikin berria egiteko. Azpiegitura Sakoneta auzoan kokatuko da, Barandiaran Behekoa hezkuntza-zentrotik hurbil eta Alzaga ikastetxea eta Leioako osasun-zentroaren artean.

Aurreikuspenen arabera, behin aurrekontua onartuta eta lanak esleituta, lanek 22 hilabeteko epea izango dute. Horien bitartez, 9.743 metro koadro izango dituen eta DBH eta Batxilergoko bosna lerro izango dituen zentroa eraiki ahal izango dute. Horri esker, eraikin bakar batean batuko dituzte gaur egun bi ikastetxetan banatuta dauden ikasleak, horietako bat, hirigunetik urrun, Santsuena auzoan da goena, hain zuzen.

EFIZIENTEA ETA IRAUNKORRA. Hezkuntza Saileko iturriek aurreratu dutenez, Aldapabarrena kalean

sarbidetza nagusia izango duen eraikina bolumen trinkoan diseinatuko dute, eraginkortasun energetikoaren eta ekonomiaren printzipioei jarraituz. Halaber, mantentze-lan gutxi eskatzen duten eta iraunkorak diren materialak ere erabiliko dituztela iragarri dute. Halaber, berokuntza eta ur beroko sistemek A energia-ziurtagiria ere izango dute, eta isolamendu-geruza batek babestuko du fatxada.

Proiektuaren arabera, eraikinaren hegoaldeko ertzean, beheko solairuan, gimnasioa eta aldagelak jarriko dituzte eta orubearen barrualdean kirol-pista eta kanpoko beste kirol-eremu bat ere egongo da. Hori guztia, ipar-mendebaldeko haizeetatik babestuta egongo diren berdegunez eta jolaserako gunez egongo da inguratuta, eremuaren topografiari eta eraikinei esker.

Gainera, eremuaren desnibela dela-eta, aipatutako kirol-pistaren estalkia, aisialdi- eta kirol-gune izango da Alzaga ikastetxe publikoarentzat ere. ◀

BETIKO
IKASTOLA
www.betikoikastola.eus

HARRO HERRI
23. korrika
Irudik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

GU ikastolen karta

Sopela Abaroko lursailak

Udalak beste urrats bat eman du Iberreko institutua handitzeko

Abaroko lursailetakoko jabeek eta Guruzne Carrasson Sopelako alkateak eremuaren okupazio-aktak sinatu zituzten otsailaren 26an.



Abaroko lursailak.

Sopelako Auzo Elkarteak jarritako Abaroko Plan Partzialaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeak segurtasun juridiko gabezi handia sortu zuen Iberreko institutuaren ondoko lursailen jabe txikien artean. Halere, otsailaren 26an, jabeek eta alkateak Abaroko lursailen okupazio-aktak sinatu zituzten. Hori dela eta, Udalak «urrats garrantzitsua» eman

du lur-eremu horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari lagatzeko eta Iberreko institutua handitzeko. Nahiz eta Abaroko Plan Partzialaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak sektore horren garapena arriskuan jartzen jarraitzen duen eta Iberre handitzeko lurzatiak aldeztatik okupatzeko segurtasun juridikorik eza sortzen duen, Udalak eta jabeek aurrera egitea erabaki dute. ◀

Sopela LGTBIQ+ komunitatea

Queer Destinations bereizgarria eskuratu du Sopelak




Gorrotorik Gabeko Eremua da Sopela, 2018tik. S.U.

Sopelako Turismo Bulegoak LGTBIQ+ komunitatea modu ezin hobean artatzeko prestakuntza, sentsibilizazioa eta prestakuntza aitortzen dituen Queer Destinations ziurtagiria jaso du. *Sopela & take a walk on the Wilde Beach* goiburupean, Sopela Turismok nazioartean ezaguna den bereizgarria jaso du, pertsona guztientzako esperientzia seguru eta abegikorra ziurtatuz, bere orientazio sexuala, identitatea edo genero adierazpena kontuan hartu gabe. Horrela, Sopelakoa da hori duen Bizkaiko lehen turismo bulegoa. Udaleko Toki Garapeneko zinegotzi Eder Gardiak nabarmendu duenez, azken hamarkadetan, Sopela LGTBIQ+ komunitatearentzako helmuga abegikor eta lagunkoi gisa azpimarratu da Kantauri isurialdean: «Horregatik, funtsezkotzat jotzen dugu komunitate honekin dugun konpromisoa ofizialki adieraztea Queer Destinations nazioarteko ziurtagiria eskuratzeko. Harro gaude bereizgarria erakusteko». 2018az geroztik, Gorrotorik Gabeko Eremu izendatu zuten Sopela, eta, beraz, askotariko publiko bati zerbitzua emateko diseinatuta daude haren instalazioak. ◀



ander deuna
IKASTOLA



Ikastolenkartea

Biharko mundua euskaraz



Gorliz-Plentzia Euskara Agenda**Agenda bateratua berrabiarazi dute Gorlizek eta Plentziak**

Martxoaren 1ean, Gorliz eta Plentziako udalek Euskara Agenda bateratua aurkeztu zuten. Hori, ordea, ez da ekimen berria: 2015-2019 agintaldian, bi herrietako udalek hitzarmen bat sinatu zuten euskarazko agenda bateratua sortzeko. Aitzitik, azkeneko agintaldian ez zuten martxan jarri eta, oraingoan, berriro ere abiarazi dute, berritasun batzuk tarteko.

Plentziako alkate den Aitor Garagarzak azaldu du helburua dela euskarazko ekintzak nabarmentzea herri bakoitzaren agendaren barnean. Era berean, etorkizunean ekintza horiek gero eta gehiago izatea nahiko lukete, gero eta programazio euskaldunagoa osatuz. Horretarako, 2015ean erabiltzen zuten logoa berreskuratu dute eta euskaraz diren ekintzetan txertatuko dituzte. Hala, herritarrek begirada batean jakin ahal izango dute zeintzuk diren euskarazko ekintzak.

Halaber, herri bakoitzak bere programazioa osatzeaz gain, beste herriaren euskarazko ekintza bana nabarmenduko dute bakoitzaren agendaren barnean. Gainera, QR bat txertatuko dute beste herriaren agenda osoaz. Era horretan, herritarrek Plentziako edota Gorlizko agenda irakurriz gero, bi herrien ekintzen berri izango dute. Martxoan, berbarako, Plentziako agendan Gorlizen martxoaren 15ean egingo den Korrikaren aurkezpena nabarmendu dute. Era berean, Gorlizko agendak Plentzian martxoaren 23an euskaraz egingo den antzerki bat txertatu du, Korrikaren ekitaldiaren barnean dagoena. Xedea da apurka-apurka Uribe Kosta osoko euskarazko agenda bateratu bakarra sortzea. ◀

Erandio 2024ko aurrekontua**Erandioko Udalak 40,8 milioi euroko aurrekontua onartu du**

EAJ eta PSEren aldeko botoei esker, osoko bilkurak argi berdea eman dio 2024rako 40.811.000 euroko aurrekontuari, aurreko ekitaldian baino % 8,15 gehiago.

Aurrekontuak hiru arlotan banatu dituzte: Herritarak, 21.941.216 euro-gaz; Lurralde Garapena, 12.651.874 euro-gaz; eta Antolake-ta, 6.013.805 euroko partidagaz. Aurrekontuoi esker, aurreko agintalditik eratorritako egitasmoei heldu ahal izango dietela nabarmendu dute udal-arduradunek, hala nola Josu Murueta plaza San Lorentzo jaien ostean berritzea edo bidegorria egiteko prozesua babestea.

Inbertsioak % 80 inguru ere areagotuko dituztela azpimarratu dute, 2023ko 1.065.600 euroko partidatik 1.924.364 eurora pasatuko baitira 2024ean. Zentzu horretan, aipatu dituzten neurrien artean daude desjabetzeak Agarrebidetako lurretan, Erandiogoikoan (300.000 euro); obrak kirol-instalazioetan (219.277 euro); desjabetzeak Jado Fundazioaren lurretan berdegunea egiteko eta kirol-gunerako, Altzagako ikastetxeetatik gertu (200.000 euro); bide publikoen zoladura (111.854 euro); inbertsioak kultu-

ra ekipamenduetan (102.633 euro) eta ikastetxeetako obrak (102.000 euro).

Azkenik, gobernu-taldeak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (150.000 euro) egiteko prozesuari berriz ekiteko konpromisoa ere hartu du, eta horretarako, Udalean ordezkartza duten alderdi politiko guztien proposamenak jasotzen ari direla baieztatu dute.

ERAGINKORTASUN EKONOMIKOA. Udal-kontu horien helburua da «erandioztarren bizi-kalitatea hobetzea, egungo beharrezanetarako zerbitzuak mantendu, berritu eta eguneratzen ditugulako», adierazi du Jon Garcia EAJko bozeramaileak. Bere aldetik, Jorge Gonzalez PSEko bozeramaileak adierazi duenez, «aurrekontu hauek egonkortasuna, saneamendua eta ziurtasuna ematen dute eraginkortasun ekonomiko proiektu batekin jarraitzeko, pertsonen eta enpleguaren aldeko apustua egiten duen konpromiso sozial sendo batetik salbuetsita». ◀



GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



ARANTZA ETXEBARRIA
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA

944 307 696

Berango Jarduera ekonomikoa sustatu guran

Lipperheide etxea egokituko du Udalak

Otxabene sektorearen urbanizazio prozesuari esker, Lipperheide familia-entxearen titulartasuna jaso zuen Udalak. Azpiegitura nahiko kaltetuta dago, eta, etorkizunean, horri erabilera bat emateko asmoz, Udalak 333.000 euroko inbertsioa aurreikusi du etxeko teilatua eta fatxadak konpontzeko. Hala ere, Itziar Aguinagalde alkateak zehaztu du egokitzapen-obra izango direla. Inbertsioa otsailan aurkeztu zuten ezohiko batzordean, eta hilaren 5ean bozkatu. Alkateak iragarri duenez, helburua da eraikinaren segurtasuna bermatzea, ondoren jarduera ekonomiko bat gauzatu ahal izateko azpiegitura horretan, hala nola hotel bat: «Berangok ez du hotel-



jarduerarik udalerrian, eta horixe izan daiteke aukera bat». Hala ere, gogoratu behar da, Otxabene sektorea urbanizatzeko proiektua aurkeztu zenean, aurreko gobernu-taldeak aurreikusi zuela kultur-jarduerak garatzeko eraikina izan zitekeela hori, edota azokaxoak eta ekimen publikoak egitekoa. Hala ere, alkateak zehaztu du kultur arloko beharrak beteta egongo direla laster Icaza jauregiko egokitzapenakaz. ◀

Barrika Apirilaren 4ra arte

Mikrokontakizunen lehiaketa jarri dute martxan

Barrikako Udaleko Kultura Sailak, Gertuko Auzokide Elkartegaz elkarlanean, aurtengo lehiaketari hasiera eman zion martxoaren 4an, astelehenean. 18 urtetik gorako uribekostarrek zein Barrikako Udal Erregistroan ageri diren kultur eta kirol elkarteetako kideek parte hartu ahal izango dute, eta apirilaren 4ra arte aurkeztu ahal izango dituzte lanak. Kontakizunek «aroma» edo berba horren edozein termino jaso beharko dute, baina gaia librea izango da. Kontakizunek generoari berari dagozkion arauak bete beharko dituzte, eta euskaraz edo gaztelaniaz idatzita egon beharko dute. Era berean, posta elektronikoz bakarrik aurkeztu ahalgo dira, honako helbide elektronikoko honetan: liburutegia@barrika.eus. Sariak Barrikako denda eta jatetxeetan trukatzeko kupoiak izango dira; lehenengoa, 200 eurokoa izango da, eta bigarrena, 150 eurokoa. ◀

JARDUERAK

Berango
Guztion konpromisoa
Un compromiso común

21. EGUNA:
KORRIKA
BERANGOTIK
PASATUKO DA:
07.20AN

14. eguna:
16.30 - 18.30 Kultur tailer bereziak eskolan.

17. eguna:
12.30 - Trikitixa emanaldia: Miren eta Roberto.
13.00 - Taloen banaketa.

Plentzia Aparkalekua arautzeko ordenantza

Udan ezarri gura dute aparkatzeko ordenantza

Uda-sasoian Plentzian aparkatzeko egoten diren arazoak direla-eta, Udalak aparkalekua mugatu gura du ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Aitor Garagarza Plentziako alkateak HIRUKAri adierazi dionez, «asmoa da neurria uda honetan bertan ezartzea»; hala ere, argitu du urtarrileko osoko bilkuran onartu zuten ordenantza oraindino behin-behinekoa dela eta izapideak egin behar dituztela hori indarrean sartzeko. Ordenantzak ezartzen du aparkamendua arautzeko muga ekainaren 1etik irailaren 30era izango dela, egun biak barne. Horren arabera, aparkaleku mota bi egongo dira udan: egoiliarrentzako «R» edo «E» bategaz adierazitako aparkalekuak eta 60 minutuko muga izango duten urdinez adierazitakoak. Arduradunek zehaztu dutenez, egoiliarrek urdinez adierazitako eremuetan aparkatu ahal izango dute, eta beraientzako izango dira aparkaleku publiko guztiak, Errotabarrikoa izan ezik; aldiz, urdinez adierazitako txandakako aparkalekuak Plazatxoa, Frontoi eta Labasture kaleetan ezarriko dituzte.

Batetik, egoiliarrek 24 orduz bakarrik aparkatu ahal izango dute beraientzako adierazitako guneean. Egoiliarrek direla adierazteko txartela eskuratu ahal izango dute,



Plazatxoa, Frontoi eta Labasture kaleetan egongo dira gune urdinak.

100

euroko isuna jasoko dute egoiliarren aparkalekuetan edo agiririk gabe aparkatzen dutenek, eta 80 eurokoa tiketa ikusgarri ez uzteagatik edo gune urdinean 60 minutuko epea gaitzen dutenek.

abesteak beste, Plentzian erroldatutakoek, ibilgailua Plentziako Udalean izena emanda dutenek edo Plentzian izena emanda duten enpresetako beharginak.

Bestetik, urdinez adierazitako eremuetan aparkatzen duten ibilgailuek Udalak jarriko dituen parkimetroetako agiria izan beharko dute ikusgai, eta gehienez aparkalekua ordubetez erabili ahal izango dute, beste ordu betez hedatzeko aukeragaz. Gune urdineterako ordutegia honako hau izango da: astelehenetik barikura, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta aste-akabuetan, 09:00etatik 14:00etara. ◀



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



errigora.eus






Korrika batzordea

korrika ERANDIO

Martxoak 9 ALTZAGA
zapata (Irailaren 23a plaza)

- 13:00 - Aurkezpena
- 15:00 - Bazkaria*
- 18:00 - Diskorrika
- 20:00 - Matraka elektrotzaranga



09:09 h.

ERANDIOGOIKOA Martxoak 15
(Euskadi plaza) barikua

- 18:00 - Aurkezpena
- 20:30 - "Mixerabliak"

Martxoak 16 ASTRABUDUA
zapata (Josu Murueta plaza)

- 18:00 - "Gauargi" erromeria

*
20240309 BAZKARIA 12 € ** 20240309

1. Karraka tabernan
2. Euskara zerbitzuan (08:00 - 14:00)
3. berbots@gmail.com

** 16 urtetik behera: 6 €

Martxoak 17
domeka
Merkatu Zaharra - 19:00



5 €

Martxoak 22
barikua
Merkatu Zaharra - 17:00

Ipuin musikala



4-6 urtekoak

1 €

Martxoak 23
zapata
Merkatu Zaharra - 18:00
Zinema familiarra



4 €



Lemoiz Kirola sustatuz

Herriko lehenengo padel-pista estreinatu dute Andra



Padel pista berria. LEMOIZKO UDALA

Otsailaren 26an estreinatu zuten Lemoizko herritarren erabilerarako eta gozamenerako eraikitako udalerriko lehenengo padel-pista. Andra auzoko Landeta kalean dago kokatuta kirol-instalazio berria, eta ordutegi zabalean dago daborduko erabilgarri: goizeko 08:00etatik gaueko 22:00etara arte. Kirol-gune berri hau astelehenetik domekara egongo da lemoiztarren eskura. Gainera, Udaletik jakinarazi dutenez, erreserba-sistema bat ezartzea aurreikusten dute Udaleko gainerako kirol-instalazioak bezala. Hala, aurretiazko erreserba egiteko prozesua erraztu gura dute gunearen erabilera hobetzeko. Oraingoz aurrera eramango duten irtenbidea da pistan bi taldek bat egiten badute, erabilera mugatua ezartzea: gehienez ere ordubetez jokatzeko ibili daiteke talde bakoitza. Erabiltzaileek pista erabili ahal izango dute 22:00ak arte. Ordu horretan instalazioa utzi eta ateak itxi beharko dira. Bestalde, 17:00etatik aurrera argiak piztu ahal izango dira sarrerako atean ondoan dagoen sakagailuagaz. Gune berri honeguz, herriko kirol-jarduera sustatu gura du Udalak. ◀

Urduliz *Begirada barri bat: guztientzako zinema*

Genero ikuspegiko zinema ikusgai Urdulizko kultur etxean

Zinema eskaintza hau sortu dute zinemaren bidez feminismoaren ikuskera zabaltzeko eta herritar guztientzako aisialdi kritiko bat eskaintzeko asmoz.

Zortzi pelikula proiektatuko dituzte aurten. HODEI TORRES

Urdulizko Udaleko zinegotzi Veronica Garciak azaldu duenez, egitasmo honen helburua da Urdulizko herritarrek erakartzea genero ikuspegiko zinemara. Hala, pelikula bakoitzagaz ekintza zehatz bat ere eskaintzen dute, filmean zehar jorrotutako edukietan sakontzeko: «Nahi dugu herritar guztiek jakintza hori bereganatzea, baita zinema saio hauek eduki horretarako sarbidea erraztea ere». Hala, zortzi

pelikula proiektatuko dituzte urte honetan; hilean behin pelikula bat, Gabonetako eta udako oporretako garaiek kenduta. Halaber, pelikula eta ekintza gehigarriez gain, haurtzaindegi zerbitzua ere eskaintzen dute. «Aisialdiko guneetako zaintza-zerbitzuak leku guztietan egon beharko liritekeela uste dut. Horregatik, emakumeok konkistatu nahi ditugun eskubide guztiak lortu nahi izateaz gain, aisialdi ere gure bizitzan egon behar du», dio Garciak. ◀

OSO ALGORTA
Gizonezko moda

instagram.com/oso_algorta/
facebook.com/OSOalgorta

ALGORTAKO ETORBIDEA, 59
osoalgorta@gmail.com

bai
euskarari

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torre, 2 48991 – ALGORTA

Uribe Kosta Martxoak 8

Talde feministek emakumeen esplotazioa salatuko dute

Urtero bezala, hamaika mobilizazio eta ekintza antolatu dituzte Uribe Kostako talde feminista ezberdinek Emakume Langileen Nazioarteko Egunerako.

Gure bizitzekin negoziarik ez!» lelopean, Euskal Herriko Mugimendu Feministak zaintza-sistemaren auzia aurtengo M8ko mobilizazioen erdigunean errotu du. Hala, 2023ko azaroaren 30eko greba feminista orokorreko ildo bereetik jarraituz, Emakume Langileen Nazioarteko Egunean, «esplotazioan oinarritutako zaintza ereduari» aurre egin gura diote talde feministek. Salatu dute gehienbat emakume migratzaileen esplotazioan oinarritzen dela gure egungo sistema. Era berean, martxoaren 8an, emakumeek jasaten dituzten indarkeria sistemiko guztiak nabarmendu gura dituzte, «genero eta botere desberdintasunak betikotzen dituen egitura sozial, politiko eta ekonomikoan oinarritutakoa».

Halaber, Uribe Kostako sare eta talde feministek ere bat egin dute aldarrikapen orokorragaz, eta zaintza eta emakumeen esplotazioa hizpide hartuta, hainbat mobilizazio antolatu dituzte eskualde osoan. Hala, martxoaren 8rako, barikurako, hainbat mani-

Deialdiak

<p>Barrika 12:30 Kontzentrazioa emakumeen biribilgunean.</p> <p>Berango 19:30 Berangoko Emakumearen Elkarreak antolatutako elkarretaratzea Sabino Aranan.</p> <p>Erandio 12:00 Elkarretaratzeak Irailaren 23a eta Josu Murueta plazetan. 19:30 Kontzentrazioa Euskadi plazan.</p> <p>Getxo 19:00 Manifestazioak Santa Eugenia eta Telletxe plazetatik</p> <p>Gorliz eta Plentzia 19:00 Manifestazioa Gorlizko eliz plazatik Plentziara.</p>	<p>Leioa 11:30 Elkarretaratzea Errekalde plazan. 19:00 Manifestazioa Sakoneta kiroldegitik.</p> <p>Lemoiz 12:00 Manifestuaren irakurketa udaletxean.</p> <p>Sopela 10:30 Elkarretateen kontzentrazioa Urgitxieta plazan. 19:30 Manifestazioa Udaletxeko Plazatik hasita.</p> <p>Urduliz 12:30 Martxoaren 10ean, manifestuaren irakurketa eta baldosa berria jarriko dute; osetan, kalejira feminista.</p>
--	---

Feministek emakume migratzaileen esplotazioa nabarmenduko dute.

festazio antolatzeaz gain, aste-akabu osoan zehar ere ekintza eta ekitaldi ezberdinak egongo dira, aldarrikapenak egun bakar batean soilik metatu ez daitezten. ◀

Uribe Kosta Mecerren alde

Eskualde osoa batu da Mecerren beharginen lanpostuen defentsara

Martxoaren 2an manifestazio jendetsua antolatu zuen Mecerrenko langile batzordeak lantokiaren etorkizunaren alde, Urdulizen. Hala, ehunka lagun bildu ziren herriko udaletxean Mecerri babesa emateko asmoz, eta pilotalekura arte abiatu ziren. Modu horretan, beharginek azpimarratu zuten lantokia ixtera kondenatu dituzten arren, haiek



Martxoaren 2ko agerraldia. LAB

trantsizio ekosozialeko planaren aldeko apustua egingo dutela. Halere, nabarmendu zuten ezinbestekoa dela erakunde publikoen inplikazio aktiboa. Sei hilabete igaro dira Stellantis multinazionalak langileei ixteko asmoa adierazi zientetik. Beharginak ez dira geldirik egon, eta alternatiba ekosozialaren bidea proposatu dute lantokiaren etorkizunagaz jarraitzeko. ◀



Nor da nor?

Astrabuduko Dantzoriko mozorro ikusgarrietatik hasita, etxean egindako jantzi originaletara, herriz herri askotariko irudiak utzi dizkigute uribekostarrek aurtengo inauterietan. HIRUKArenwegunean horiek guztiak ikusi ahal izan dira egunotan egindako galeria koloretsuetan, eta horietan agertutakoen lagin txiki bat ekarri dugu orriotara. Zeure burua topatuko duzu inon? Adi ibili!

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIAK: HIRUKA • BERANGOKO UDALA











Iñaki Gaminde Euskararen bariazioan aditua

«Euskere aldatu da, bizimoduak be aldatu direzelako»

Euskalkien Lagunak lantaldeak eta Iberba Euskera Zerbitzuak Berbategia.eus webgunea aurkeztu zuten iaz, ekainean. Horretan, tokiko euskalkien 34 hiztegi eta 110.000 erregistro baino gehiago daude batuta, tartean Berango, Erandio eta Leioako berbaerei lotutakoak. Honek guztiak Iñaki Gaminde EHuko irakasle eta EUDIA taldeko kide izandakoak batu ditu, 1979tik hona.

TESTUAK ETA ARGAZKIA: IKER RINCON MORENO ►

Berbategia egitasmoak 34 hiztegi eta 110.000 erregistro baino gehiago batuta ditu uneotan; horietatik, Erandio, Leioa eta Berangoko berbak ditu jasota, zuk zeuk batutakoak. Zenbateko lana izan da hori jasotzea? Beharragatik batuta dekotena emotea izan da nire lana, beste barik. Ez dakit zergatik ez dagoen Urdulizko sarrerarik, agian, Gatikakoakaz batera egongo dire, tesirako batera jaso neuelako. Behar guztietarako, lana beti berdina izan da: jendea topa, grabatu, eurakaz egon, entzun eta harritu egiten zaituena preparatu berriro euren gana jotzeko edo ulertu egiten ez dana jasotzeko. Horixe izan da neure beharra ekinbide honetan, beste barik: lanagatik jasotakoa lagatzea.

Noiz hasi zinen mota horretako lanak egiten? 1979an hasi nintzan; datak jarrita dekodaz zintetan, hasieran zintetan grabatzen neuelako. Baina hizkuntzari lotuta argitaratutako lehenengo beharra 1982an izan zan, Gatikako eta Butroe inguruko euskerari lotuta.

Errekaldekoa izanda, zergatik, zehazki, Butroeko euskara? Nik hango euskere ikisi neuen, eta ikusi neuen marabilla bat zala; artikulu bat egin neuen, eta hala hasi nitzen zalezen jendearen euskere normalagaz.

Aurretik, baina, euskara batua ikasi zenuen, ezta? Bai, nik nagusitan ikisi dot euskere, eta

4.628

fitxa ditu Berangoko atalak, Iñaki Gamindek jasota eta Berbategia.eus egitasmoari lagata.

4.561

fitxa ditu Leioako atalak, Iñaki Gamindek jasota eta Berbategia.eus egitasmoari lagata.

6.609

fitxa ditu Erandioko atalak, Iñaki Gamindek jasota eta Berbategia.eus egitasmoari lagata.

ikisi neuen irakatsi ostena. AEK existitu aurretik, kuadrilla bat batzen hasi ginen topa gendun irakasle bategaz, eta horrek zekien euskere ikisi gendun. Gero, betiko euskaldunakaz egoten hasi nitzen, eta orduantxe hasi nitzen konturatzen niri irakatsi ostena eta eurek egiten ebena ez zala gauza bera, ha zala bizi ahal izateko euskere. Ez dekot ezer euskere batuaren kontra, ondo ikusten dot, baina horrek ez du balio euskeraz bizi ahal izateko. Ez du balio, ze behar dire beste eredu batzuk bizitza normala egiteko edota seme-alabak jagoteko. Batua oso ondo dago hitzaldiak emoteko; goi mailako gauzak egiteko. Nik hori ulertu dot betiko euskaldunakaz eta betiko eredu ez-estandarraz. Hor hasi nitzen zale-tzen, eta herririk herri mugitzen, Euskal Herri osoan, gaur egun arte.

Ordutik, Euskal Herri osotik ibili zara tokian tokiko berbak eta aldaerak jasotzen. Zelakoa izan da behar hori? Gehienbat landu dot hemen ingurukoak, baina Euskal Herri osoa korridu dot, bai. Bentaja dekot, denboraren porazuz nahiko ondo ikisi dodalako euren moduan egiten, eta, orduan, horrek emoten doste bentaja bat: eurak ni be hartzea euretaketozat. Ez doste begituten raro, berba egiten doste normal, eta hori niretzako bentaja bat da, Zuberorara noanean ez dudana, adibidez; han segitzen dot raro izaten, eta segituko dot halan.

Datu-batze horretan, zer-nolako jendea el-karrizketatu izan duzu? Hasi nitzenean, gaztetan, bilatzen neusen 50 urtetik gorako pertsonak, eta harritzen nitzen euren mundua, niretzako total ezezaguna zalako. Izan ere, hizkuntza danagaz dago lotuta. Nik aztertzen dodaz aditzak, fonemak eta horrek gauzak, baina baita bizimodua be. Orduan, eurakaz berba egiterakoan, harritu egiten nitzen. Gaur egun, aldiz, nire belaunaldikoek ez dinoste ezebez nik ez dakidana, eta hasi naiz gazteakaz grabatzen, XX. mendearen goienean jaio-takoakaz. Mundu guztiak dekoz bizipenak, zer kontak, era batekoak edo besteak, eta, benetan, harritu egiten naiz gazteakaz.

Gazteakaz harritu egiten zarela diozu, zer dela eta? Euskaldunak direzen neurrian, harrigarria da zer pasatzen ari dan Euskal Herrian momentu honetan. Gazteen artean, euskere egokitu egin da, arauak hautsi dire, eta hori zelan egiten ari dan sano interesgarria da. Gainera, kultura aldetik ere, gazteen ikuspegia beste mundu bat da.

Zelakoa izaten ari da aldaketa hori? Buruan argi eduki behar dogu aldatzen ez dan hizkuntza galdu egiten dala. Eta hori da zaharrek ez dakitena. Askok esaten dere «Qué mal hablan los jóvenes» eta halakoak, eta hori kaikukeria da. Hori da ez jakitea zer dan hizkuntza. Generazio bakoitzak dekoz bere kezkek, izan kulturalak edo dena delakoak, eta hizkuntza horretara egokitzen deu. Gaur egun, gazte gehienak urbanoak dire, apenas dago gazte ruralik, eta, ondorioz, kultura diferente batekoak dire. Orduan, galdu da bizimoduagaz loturiko kultura osoa, baina galdu behar dalako izan da, bestela ondiño egongo giñen errobera topa barik.

Bariaziorik al dago euskaran, eta, egotekotan, zelakoa da hori? Hizkuntzaren gaineko ikerkuntzan bariazioa dago, bai, ikaragarri; edadeagatik eta generoagatik, besteak beste. Azken hori oso bitxia da ze, orain, Bizkaiko leku askotan, neskek -tz egiten dere beti, eta mutilek, -tx. Hori ez da lexiko kontua, fonologiari eragiten dotson fenomeno interesgarri bat baizik. Horrek dire genero-markatzaileak, eta beste hizkuntza batzuetan badakigu hala-koak pasatzen direzela be.

Zergatik gertatzen ari da hori gurean orain? Generoa, nolabait, adierazi behar dalako, edo dana dalakoa. Hori hasi da pasatzen Euskal Herrian, eta Uribe Kosta inguruan erdaraz baita ere. Hau ikertu behar da luze eta zabalean, jakiteko nondik dabilen gaia. Ikertu behar da zein momentutan pasatzen dan hori;

Gazteen euskara, egokituta

«Gazteen artean, euskere egokitu egin da, arauak hautsi dire, eta hori zelan egiten ari dan sano interesgarria da. Gainera, kultura aldetik ere, gazteen ikuspegia beste mundu bat da»

Genero-markatzaileak

«Bizkaiko leku askotan, neskek -tz egiten dere beti, eta mutilek, -tx. Horrek dire genero-markatzaileak, eta interesgarria da ikertzea nondik dato-rran hori»

Bariazio-eragileak

«Lau bariazio-mota dagoz, elkarren eraginpean dagozanak: geografikoa, soziala, estilistikoa eta tenporala. Gainera, modak dauz hizkuntza, eta, gure bizimodua kanbiatzen dan heinean, geuk be kanbiatzen dogu hizkuntza»

txikerrek, seguruenik, ez dere egingo, beraz, zein momentutan hasten dire neskek eta mutilak bereizten? Zer pasatzen da sexu erlazioakaz ere? Nik badakit gay direzen batzuek egiten derela nesken modulez, -tz erabilita, baina ez dakit hori orokorra dan edo ez. Hartara, ikertzeko esparru diferenteak dekoguz, orain arte izan ez doguzenak. Baina, interesa deko horrek? Nik uste baietz, euskaldun modulez jakin behar dogu zertan gabiltzazan. Lehen, zan zana; orain, da dana; eta bihar, izango da ez dakigu zer.

Euskara batetik bestera, zerk eragiten du bariazio-mota bat edo beste? Lau bariazio-mota dagoz, elkarren eraginpean dagozanak. Alde batetik, bariazio geografikoa dago; gero, soziala, dela generoa, dela adina. Azken horri helduta, izugarrizko marka da gaur egun; badakigu zaharrak nortzuk direzen entzunda bakarrik. Klase soziala be markagailua da, momentuon ez dakigu zenbaterainokoa, baina, Bermeon, esaterako, bai sumatu doguz ezberdintasunak horren arabera. Bariazio estilistikoa be badi-re: danok ez dogu bardin egiten beti; egoeraren arabera moldatu egiten dogu euskere, konturatu barik gainera. Segun nogaz gagozan, modu batera edo bestera egiten dogu, eta, aldagai horiei, bariazio tenporala gehitu behar zaie. Diakronikoa esaten dana da hori, eta denboraren porazuz kanbiatzen doa norberarena be. Orain 40 urteko grabaziñoak entzuten dodazenean, estiloa eta egiteko era kanbia egiten da, modak dagozelako. Bai, modak dauz hizkuntza, eta, gure bizimodua kanbiatzen dan heinean, geuk be kanbiatzen dogu hizkuntza. Orduan, honek lau bariazioak elkarren eraginpean dauz.

Eta, Uribe Kostan, bariaziorik igarri duzu herri batetik bestera? Bai, zuen ingerun igartzen zen, eta ondiño bebai igarri littike. Lehen, sopoloztarra nor zan atoan igarri egiten zan, ahoa zabaldu orduko, -txe delakoagatik. *Ai-txe* modukoak erabiltzen dittue, eta horixe da haien marka bat, baina ingerura be zabaldu da; badakit Urdulizko gazteek be egiten derela, eta Barrikan be zabaldu da. Hortxe, gauza oso bitxi bat gertatzen da be. Azkuek dakar Zabala izeneko bategaz egon zala bere sasoiari, eta iraganeko aditzak -n barik erabiltzen eun: ekarri *neu*, etorri *nitze*, eta halakoak. Ni egon nintzan tipo horren alaba gazteenagaz, Bizenta Zabalgaz, eta holantzik egiten deu berak be. Eta niri oso bitxia egiten daste hori, Aezkoan egiten dalako hori, Nafarroan, baita Otxandion be, hika danean. Punta ezberdinetan.

Euskalkieie dagokienez, gaur egun nolabaiteko nahaste-borrastea dagoela kezu dira asko,

Berbategia.eus, adibide batzuk

Berango

Baño lelau, beño lelau

Bai yonas ni eskondu baño lelau – (Bai joan naiz ni ezkondu baino lehenago).

Se espabere / espabe

Eta ostabe itxi se espabe artxen badosu aste baten segidun igual esin sara ibilli bere – (Eta ostera ere utzi ze **ezpabere** hartzen baduzu aste baten segituan beharbada ezin zara ibili ere).

Ostabere / ostabe

Iru lau egunen bota en piñudi, berrogei giselen, eta gero aittek erosi otzon ostabere orreri aberatzari – (Hiru lau egunean bota zuten pinudia, berrogei gizalan, eta gero aitak erosi zion **ostera ere** aberats horri).

Parkeske

Niri parkeske eskatu ber dostesu – (Niri **barkamena** eskatu behar didazu).

Erandio

Pertenesidu

Urerik esales oten, asi, ba, Akerlandan, eta Erandioko Landararten, danak etorte sin, pertenesidute seen ona posora, ona – (Urik ez zenez egoten, hasi, ba, Akarlandan, eta Erandioko Landaraino, denak etortzen ziren, putzu **honetakoak ziren**, hona).

Itxi

Eta derrigor itxi ber deudi – (Eta derrigor **utzi** behar dute).

Eridu

Eridetako pinutxek emen bean eukiten gendusen guk asko ta oin be daus – (**Zaurietarako** luki buztanak hemen behean edukitzen genituen guk asko eta orain ere badaude).

Errekaduk in

Errekaduk iten ba nik ba, ixeko yote sanen esnekas Astrabudure, eta en jeneral aston ekarteseun errekaduk beti ba – (**Erosketak egiten** ba nik ba, izekoa joaten zenean esneekin Astrabudura, eta gehienetan astoan ekartzen zuen mandatuak beti ba).

Leioa

Txuntakata

Yolasa esetu ot sonues, e, txuntakata, atxineko, txuntakata atxine – (Jolasa ezagutu dut **soinuagaz**, bateriagaz, antzinakoa, bateria antzina).

Sepillu, sipillu

Sarrantxe ta sipillu bet, kanpora atarateko egunen egunen, garbituten gendun guk beye – (Txarrantxa eta **eskobila** bat, kanpora ateratzeko egunean-egunean, garbitzen genuen guk behia).

Talege

Ta yoten gintzesen partide bat emeti, artu geure talegatxuk eta, an, e, Butroiko bidera bajatu baño lenau, aitu iten gendun ese, guarda sibile ibilte san ordun – (Eta joaten ginen partida bat hemendik, hartu geure **zorrotxoak** eta, han, Butroeko bidera bajatu baino lehenago, aditu egiten genuen eze, guardia zibila ibiltzen zen orduan).

Olan ite san ugerrak koyu estein

Holan egiten zen ugerrak har ez dezan.

eta, gure kasuan, euskalkiak galdu egin dire-la. Zer iritzi diozu horri? Nahastea leku guztietan dago, ez pentsa gu garela okerrenak. Nahaste-borrastea da mundu honen ezaugarria, herriz herri mugitzen gara, gero eta gehiago, eta batean egiten dan moduak besteari eragiten dotzo. Uribe Kostan, pasatzen dana da tokikoa galdu egin dala urte gutxian, eta badago galera bat, handia. Oraintsu arte, ingeru honetan, euskaldunak ziren nagusi, baina ez da garapen logikorik egon. Batzuk forra dire lurak saltzen eta eraikitzen, eta, ondorioz, ito dire bertakoak; kanpoko jendeagaz bete dire herriak, eta, horregaz batera, erdara, beste kultura bat eta beste beharrian batzuk. Gerraostetik hona izan da batez ere. Getxon, adibidez, niri raro begituten osten euskaragaz interesa neuelako; inork ez eun interesik eduki euren gauzakaz, euskeragaz. Euskaldunak beti egon dire lotsatuta, nolabait.

Euskalkiak berreskuratzeko aukerarik ba al dago? Zein da Berbategiaren helburua ekimen honegaz? Berbategia egitasmoak euskalkiei bultzada emoteko lana abiatu eun, eta

Euskalkien nahastea

«**Nahastea leku guztietan dago, eta horixe da honen ezaugarria. Euskere hiztunona da, eta euskalki barriak sortu beharko dire. Horiek baliagarriak eta positiboak izango dire, jendeak erabiltzen dittuen neurrian**»

niri proposatu osten horretan sartzeko, baina ezetz esan ontzen. Ni zahar nago ja, eta, gaur egun, gainera, uste dot jakin behar dogula atzean geratzen. Gazteei tokatzen dake gauzak egitea; eurek ikusi behar dere zer egin gura deren. Niri tokatzen daste laguntzea, eta prest nago horretarako, baina harago ez. Dena den, eztabaida hauek beti egon dire. Ni gaztea nitzenean be eztabaidatzen gendun. Taliban samarrak giñen batua zala eta, euskalkiak deuseztatuko euselakoan. Ez gendun jakin erlatibizatzen; euskere hiztunona da, ez da goitik behera egiten. Euskalki barriak sortu beharko dire, eta horiek baliagarriak eta positiboak izango dire jendeak erabiltzen dituen neurrian.

Niri asko kezkatzen nauena da beharra utzi dotenetik hona ezin dodala euskararik egin etxetik kanpo; ez dekot nogaz egin. Nik gure dot egin berba euskaldun normalakaz. Ez dogu aurrera egin. Jodidu daste esparru euskalduna, eta kezkatuta nago horregaz. Eta gazteen kezka beste batzuk izango dire; ni egongo naiz ados, eta egongo naiz horren alde, baina inondik inora ni horren aurretik. ◀

Martxoa

Barrika

Martxoak 16, zapatua

Korrikaren jaia

12:00 | Futbol-zelaian eta frontoian

12:00etan, pankarta- eta peto-tailerra;
13:00etan, herriko Korrika futbol-zelaitik; eta,
13:30ean, txalaparta-tailerra eta hamaiketakoa.

Martxoak 22, barikua

Ludoteka: Zorte oneko elefante indiarra

18:00 | Liburutegian

5-12 urte arteko umeentzat. Izen-emateak:
946 775 163 edo liburutegia@barrika.eus.

Martxoaren 25etik apirilaren 5era

Pazkolekuak

Ander Deunan

5-10 urteko umeentzako aisialdia. Informazioa
eta izen-emateak: 946 775 163 edo
liburutegia@barrika.eus.

Berango

Martxoak 17, domeka

Korrikaren jaia

12:00 | Sabino Arana kalean

Trikiti emanaldia eta, 13:00etan, talo-jana.

Martxoak 17, domeka

Antzerkia: Laborategi zorora

19:00 | Berango Antzokian

Umeentzako zientziari buruzko antzerkia.

Martxoak 24, domeka

Animazio zinea: Mavka, basoaren zaindaria

18:00 | Berango Antzokian

Mavkak basoa babestuko du sorginarengandik.

Erandio

Korrikaren aurkezpenak

Martxoak 9, zapatua

13:00 | Irailaren 23a plazan

Aurkezpena, herri-bazkaria, Diskorrika eta
Matraka elektrotzaranga.

Martxoak 15, barikua

18:00 | Euskadi plazan

20:30ean, Mixerabliak taldearen kontzertua.

Martxoak 16, zapatua

18:00 | Josu Murueta plazan

Gauargi erromeriaren kontzertua.

Martxoak 17, domeka

Baginaren bakarrizketak

19:00 | Merkatu zaharrean

Umorea, samurtasuna eta izua adieraziz, poesia
eta probokazioz beteriko ikuskizuna.

Getxo

Martxoak 13, eguaztena

Berbaldia: Kiroletan Txonbo!

18:00 | Villamonte kultur etxean

Ibilaldiko solasaldia, Iker Acero, Arrate Orueta,
Endika Guarrotxena eta June Kortazarregaz.

Martxoak 15, barikua

Antzerkia: Bihar arte soilik

19:30 | Muxikebarrin

Harremani buruzko ikuspegi komikoa.

Martxoak 22, barikua

Kontzertua: Igor Elortza & Rafa Rueda

21:00 | Muxikebarrin

Ikus-entzunezko bertso jarriak dakartza,
Anonyme Popular egitasmoak.

Martxoak 24, domeka

Antzerkia: Kutxartean

18:00 | Muxikebarrin

Umeentzako abentura istorioa.

Gorliz

Martxoak 15, barikua

Korrikaren aurkezpena

17:00 | Ibarreta plazan eta Iberrebarrin

Korrikaren koreografia, musika, txokolatada.

20:00etan, Lehian taldearen erromeria.

Martxoak 16, zapatua

XI. Indaba Txapelketa

09:00 | Ibarreta plazan

Urris, Goskoa eta Udalak antolatuta.

Leioa

Martxoak 15, barikua

Dantza: Tierra de nadie

20:30 | Kultur Leioan

Dantza, ahotsa, zuzeneko musika eta atmosfera
poetikoak dakartzan Eva Guerreron ikuskizunak.

Martxoak 22, barikua

Kontzertua: Joshua Edelman & Xabi Arakama

20:30 | Kultur Leioan

Hainbat musika kulturen arteko topaketa.

Plentzia

Martxoaren 1etik 31ra

Erakusketa: Kantabria: Burdina, gatza eta isiltasuna

Plasentia de Butron museon

Bizkaiko golkoak urperatutako itsasontzien
argazki-erakusketa. 22an, urpekariek hitzaldia
eskainiko dute Plentziako Itsas Estazioan.

Martxoak 20, eguaztena

Berbaldia: Gure hondakinak

19:00 | Goñi Portalen

Plentziako Herri Lurrak elkarteak antolatuta.

Martxoak 21, eguena

Korrika diskofesta

17:00 | Plentziako eskolan

Plentziako IGEk antolatuta.

Martxoak 23, zapatua

Antzerkia: Piztu emakumeON energia

18:00 | Goñi Portalen

Zelakoa litzateke mundu bat benetako
berdintasunagaz?

Sopela

Martxoak 15, barikua

Antzerkia: El amanecer del fuego negro

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Dantza inklusiboko eta musikako ikuskizuna,
euskaraz eta gazteleraz.

Martxoak 22, barikua

Antzerkia: Hau ez da gerra bat

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Formatu handiko obra, eremu eszeniko handian
eta berritzailea proposatzen duena.

Martxoak 24, domeka

Sopelako XX. Herri Lasterketa

10:00 | Udaletxeko plazan

Izen-ematea eta informazioa: Munarri Atletismo
Taldea.

Urduliz

Martxoaren 6tik 16ra

Erakusketa: Literaturako Nobel saridun emakumeak

Kultur etxean

Martxoak 15, barikua

Zinema: Cerdita

17:30 | Kultur etxean

Genero ikuspegiko zinema, 16 urtetik
gorakoentzat.

Martxoak 22, barikua

Jokuz joku

17:00 | Urdulizko gaztelekuan

Gaztelekuko mini-olinpiadak; informazioa: 688
846 190 edo gazteleku@urduliz.eus



Oier Pastor Alonso


Nongoa
Lemoiztarra.

Adina
33 urte.

Zertan dabil
Doktoretza-ondokoa egiten.

Noiz heldu zinen?
2021eko urtarrilean.

Noiz arte bertan?
Bi urte gehiago bai, gero, ikusiko du.



Lurraldea
AEB.

Azalera
9.826.675 km².

Hiriburua
Washington.

Biztanleria
331.449.281 (2020).

Hizkuntzak
Ez dago hizkuntza ofizialik, baina ingelesak du estatus ofiziala, baita hawaiiiera (Hawaii) eta gaztelania (Puerto Rico). Hizkuntza indigenak ere badira.

Moneta
Dolar estatubatuarra.

«Euskal komunitate indartsua dago hemen»

IKER RINCON MORENO ▶

Lemoiztarra sortzez, sopoloztarra ikasketaz, eta Plentzian futboleko eta Leioan pilotan aritutakoa, uribekostar pe-toa da Oier Pastor. Eskualdean alderik alde mugitzeaz gainera, sorterrira atzean utzi eta atzerrira jotzeko grina izan zuen 2021ean, zientzialari gisa hazteko asmoz. «Hemengo laborategi batean lan egiteko aukera suertatu zitzaidan, eta hemen zientzia nola egiten den ezagutzea deigarri egiten zitzaidan». Hala, AEBetako San Frantziskora egin zuen hegan, Kaliforniara. Urte bi lehenago ere bertan izan zen, doktoretza egiten ari zela, hiru hilabetez, eta gogotsu egon zen han, akorduan duenez. Neurozientziaren alorrean dabil ikerketak egiten, eta, dioenez, pertsona eta zientzialari gisa hazteko inguru aproposa da, egiten duena gozatzeko aukera eskaintzen diona.

2021etik hona, askotarikoak ikusteko eta ezagutzeko aukera izan du lemoiztarrak, hala nola itsas lehoien gotorlekua den portua, Golden Gate zubi ospetsua eta Dolores misioa, ber-

tan bizi ziren indigenen kontrako sarraskiaren ondoren San Frantzisko hiria eraikitzen hasi zen gunea. Eta, aitortzen duenez, besteak beste, harrigarria egiten zaio hirian dagoen kulturaren nahasketa, «abiapuntu ezberdinetatik datorren jendea, lehen, bigarren edo hirugarren belaunaldikoak izanik ere, eta horrek sortzen dituen harremanak». AEBetako sistema, aldiz, «astuna» egiten zaiola aitortzen du: «Orokorrean, gizarte oso indibidualista da, gastua egitea eta zorretan egotea saritzen duena», eta baita trafikoa ere, «latza da!».

Munduko beste puntan egonda ere, baina, etxean sentiarazteko modukoak ere aurki ditezkeela dio: «Pilotan, bertsotan eta euskal kultura bizitzen jarraitzen dut nire egunerokotasunean; euskal komunitate indartsua dago, eta itzela da hori niretzako». Ildo horretan, hiririk gertu ondo jateko leku ona Euskal Etxea dela dio, «lehen beste bat bazen San Frantziskon bertan, baina itxi egin dutela jakin izan dut». Hala ere, ohartarazpen bat egiten du: «Dena da garesti hemen. Oso garesti». ◀

Lehen/Orain **Areetako tren geltokia, 1955**



ITURRIA: JON ARREGI

Uribitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA

Aitor Fdez. de
Martikoen
Rodriguez

DOINUA

*Amodioa gauza
tristea*

ARGAZKIA

Iker Torre
Navarro

Gizaki aseezina

*Ur-masa handi baten ondoan
nago, bihotzean mina:
ikusten dudan triskantza horrek
eragiten dit biguina.
Pentsa dezagun toki hori bera
nolako zen antzina,
haren barruan sartu aurretik
gizaki aseezina...
politagoa izango zela
ziur nago, bai, jakina.*

*Francisco Franco izan bide zen
beti urtegien zale
eginarazi zituelarik
ehun eta piko ale.
Hari ez zion axola ezerk,
beretzat ez bazen kale:
pertsone edo naturguneak,
bazen aski «orojale»;
den-dena birrin, dena suntsitu,
berak esan arte «bale»!*

*Orain, oster, guztion erruz,
klimate daukagu arraro.
Garai batean, ur-kontuetan
ibili ginen oparo;
orain, urtegi sakon-zabalak
hustu bidean zeharo.
Izadiari kalte eginda
bortitz, gogor, ez emaro:
aro gorria datorkigula,
jada ezin bizi naro.*



MARTXOAK 10 MARZO
Auditorium // 18:00 // 6 €

MAMUT
Markeliñe (Euskadi)



MARTXOAK 15 MARZO
Auditorium // 20:30 // 10 €

TIERRA DE NADIE
Doos Colectivo (Euskadi)



MARTXOAK 22 MARZO
Auditorium // 20:30 // 10 €

JOSHUA EDELMAN & XABI ARAKAMA
Traditions & Tradizioak (Euskadi)



Marian Becerro Psikologoa

«Antsietatea duten emakume gehienek besteak zaintzeko nahia lehenesten dute»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Antsietateak lotura estua du emakume izatearen eraikuntza sozialagaz: gizarte patriarkalak eta norberak bere buruarengan sortutako espektatiba eta presioek eragin handia dute emakumeen osasun mental eta fisikoan, antsietatea sintoma nagusizat nabarmenduz. Hala baieztatzen du Marian Becerro psikologoak, 30 urtez emakumeakaz antsietatea lantzen eta kudeatzen diharduen aditua. Otsailetik apirilera, antsietatea kudeatzen ikasteko tailerra ematen ari da Urdulizko kultur etxean.

Hasteko, zer da antsietatea? Ikuspegi klinikotik analizatuta, sintoma bat da; gorputzaren adierazpen bat da: adrenalina igotzen da, bihotzeko taupadak areagotzen dira eta azkarrago arnasten dugu, korrika egiten ari tuko bagina bezala. Hala, antsietatea sentitzen duen pertsonak bizirauteko beharrezko dituen mekanismo espezifikoak jartzen ditu martxan eta alerta egoeran dago.

Nola eragiten du emakume izatearen eraikuntzak antsietatean? Gure ikastaroan subjektibotasun femeninoaren eraikuntza aztertzen dugu: emakume gisa heztean, eguneroko bizitzaren kudeaketagaz zerikusia duten ondoezak analizatzen ditugu. Hala, heredatu ditugun genero-rolak berrikusten ditugu eta emakume gisa nola eraiki garen aztertzen dugu. 30 urte baino gehiago daramatzat programa egiten, eta ikusi dut gure kulturaren joera bat dagoela emakumeek amaren rola bereganatzeko: hau da, antsietatea edota depresioa duten emakume gehienek besteak zaintzeko nahia ezartzen dute nukleo nagusi gisa. Emakume izatea da besteak zaintzera bideratuta egotea, besteen beharrianak lehenetsiz norberarenak baino gehiago.

Zeintzuk dira emakumeengan eragina duten arrisku-faktoreak antsietatea sentitzeko? Batez ere, gainkarga. Itxuraz, badirudi berdintasunetik eta parekotasunetik ari garela harremanetan, baina nik gero eta kargatua go ikusten ditut emakumeak. Gero eta esijentzia-maila handiagoa dago. Iaz, Uribe Kostan tailerra egin nuenean, nahiz eta emakume



Becerro psikologoak 30 urte dihardu antsietatea emakumeakaz lantzen. HODEI TORRES

Itxaronaldian

«Tailerrera etortzen diren emakumeek batez beste 50 urte izaten dituzte. Kasu askotan gurasoak edo bilobak zaintzen dituzte, beraz, zaintzailearen rol-efektu hori areagotu egiten da, eta mundu-sozial oso txikia dute. Beti daude itxaronaldian: itxaroten dute seme-alabak hazi arte, gurasoak sendatu arte, garaiak aldatu arte. Eta, azkenean, beren bizitza besterik ez da igarotzen»

gazteagoak izan, agerian geratu zen ez zutela autozainketarako denborarik.

Emakume gisa hezitako subjektuek beti izan dute antsietate hori? Orain psikofarmakoen kontsumoa areagotu da, baina, emakumeen rolen eraikuntzaren eraginez, antsietatea beti egon da. Hala ere, lehen, emakumeek beste era batera sozializatzen zuten, kontaktu gehiago zuten beste emakumeen artean. Horregatik du hainbesteko indarra emakume talde batek: nire herriko emakumeak, adibidez, denak batera josten hasten ziren kalean, eguneroko gauzak elkarri kontatzen zizkieten eta elkarri entzutea asko laguntzen zien. Emakume talde horiek galdu egin dira.

Zer estrategia aurkezten dituzu ikastaroan antsietatea kudeatzeko? Emakumea fisikoki nola dagoen aztertzen dugu, esaterako, nola arnasten duen. Hortik abiatuta *mindfulness* delakoagaz lotutako neurriak hartzen ditut. Psikodrama ere egiten dugu: grekoz, *drama* akzioa da eta *psiko* psikologia. Emakumearentzat gatazkatsua den eszena bat planteatzen da, eta, antzerki terapeutiko moduko baten bidez, gatazka-egoera horri irtenbidea bilatzen ikasten dute. Ikastaroaren efekturik garrantzitsuena da emakumeak ingurune pribatutik ateratzea: taldeetan parte hartzea etxetik irtetea da. Beste emakume batzuakaz egoteak asko laguntzen du eurek hautemandako gizarte-babesean. ◀

Eva Guerrero Sortzaile eszenikoa

«Niretzat, ideiak proposatzeko eremua da artea, ondoren zuk interpretatu ditzazun»

ANDER ZARRAGA ▶

Eva Guerrero dantza-ikuskizunen sortzaileak *Tierra de nadie* bere azken lana ekarriko du Kutur Leioara martxoaren 15ean. Leioaztarrak itsaso sakonean, naturan eta gorputzen artean dagoen baina inorena ez den eremu hori ezagutzeko bidaia proposatzen du zuzeneko musika, dantza, argia eta gorputzen hizkuntzagaz egindako ikuskizun honetan.

Zer kontatu ahal diguzu *Tierra de nadie* ikuskizunari buruz? Dantza garaikideko ikuskizuna da; esango nuke itxura ederra duela hain polita ez den zerbait kontatzeko. Honen guztiaren atzean Garazi Lopez de Armentiak eta biok egindako ikerlana dago, eta abiapuntua zera da: non hasten da gorputz bat eta non bukatzen da bestea? Guk ulertzen dugu gorputzak ez direla azalean bukatzen, zu eta nire artean gorputzek bat egiten duten leku bat dagoelako; eremu hori ez da ez zurea ezta nirea ere, inorena ez den lurra da. Horrez gain, argiaren konposaketaren aldetik poesia asko duen ikuskizuna ere bada, eta musikak eta ahotsak ere berebiziko garrantzia dute.

Ikerkuntza- eta sormen-prozesu hori nola eraman duzue agerlekura? Prozesu luzea izan da. Inspirazioa nigana etortzearen zain dagoen horietako bat naiz, horregatik, uste dut garrantzitsua dela lanean jarraikortasuna eta pazientzia edukitzea. Adibidez, prozesu honetako lan asko naturan egin ditugu, eta hori presente dago agerlekuan makilen eta enborren bitartez. Itsaso sakonean ere inspiratu naiz, eremu bitxi eta ezezagunak iradokitzen dizkidalako, eta horren moduko atmosfera bat sortzen saiatu naiz. Elementu horietatik abiatuta hasi nintzen narratiboa eta onirikoa den kontakizun bat sortzen. Hau kontatu arren, gero publikoak ez du zertan jakin behar ni horretan oinarritu naizenik, beraiei iradokitzen dietena sentitzea gura baitut. Niretzat, artea ideiak eta sentimenduak proposatzeko eremua bat da, baina bakoitzaren interpretaziora irekita geratu behar da.

Esango zenuke dantza garaikidea hainbat interpretaziora irekita dagoen zerbait dela? Nik horrela ulertzen dut dantza, ni ere horre-



Guerrerok eszena-sortzaile gisa deskribatzen du bere burua. AROA SOTELO VELASCO



Doos kolektiboa

Jemima Canok eta Eva Guerrek osatzen dute Doos kolektiboa, eta beraien lana proposamen kulturalak sortzea, zabaltzea eta partekatzea datza. Hurrenez hurren, ekoizle-kudeatzailea eta sortzaile-zuzendaria dira, eta horri esker hainbat sormen-lan garatu eta kudeatzeaz gain, sorkuntza-guneak ere kudeatzen dituzte nazioarteko proiektuetan eta sentsibilizazio programetan.

la hezita nagoelako. Jendeari beti ulertarazten saiatzen naiz ez dutela zertan ikuskizuna egitura klasiko batetik ulertu behar, istorio bat kontatzeko bestelako modu bat delako. Nire ikuskizunak errazak egiten saiatzen naiz, jendearengana heldu gura dudalako; artista bat naiz, baina ez naiz igeltsero edo kazetari bat baino gehiago sentitzen. Batzuetan uste dut artistak oso toki elitista batean kokatzen direla eta pentsatzen dutela beraiek egiten duena ez dela mundu guztiarentzat.

Uste duzu oraindino tabuak daudela gorputzaren eta bere adierazpenaren inguruan?

Nik klaseak ematen ditudanean kontaktutik egiten dut lan, eta ikusten dut jendea nahiko azkar ohitzen dela, berdin dio zein adinetakoak diren. Uste dut errespetutik egiten den kontaktu horretan gorputzak eskertu egiten duen zerbait dagoela. Ikusten dut nire klaseetara datorren jendeari aurpegia aldatzen zaiola, erlaxatu egiten direla; ez dakit horrek norainoko eragina duen beraien eguneroko bizitzan, baina hainbat urte daramatzat hemen klaseak ematen eta jendeak urtez urte errepikatzen du. Hala ere, uste dut gure gorputzarengandik oso deskonektatuta gaudela, gizarteak ere ez digulako horretan laguntzen. Nahiago nuke gorputz-adierazpena txikitatik landuko balitz, horrela alaiago biziko ginatkeelako, klaseetan hori ikusten baitut. ◀

Zaintza sitema publikoaren alde

PAULA AMIEVA CLEMENTE Berdintasun-aholkularia



Euskal Herriko mugimendu feministak joan den azaroaren 30ean deitutako greba orokorrak gizonak eta emakumeak interpelatu nahi zituen, funtsezko eztabaida baten inguruan: gaur egungo zainketa-ereduaren aldatetaren beharra. M8ra hurbiltzen ari garen honetan, feministok aldarrikapen horri buruzko hausnarketa egiten ari gara: nola jarraitu hasitako iraultza honekin? Ez da batere erraza kaleetan zein erakundeetan eragina duten ekimenak abian jartzea eta gaur egun «zaintza-sistema» gisa ezagutzen dugun horretan eragina izatea.

Besteak beste, gai hauek jorratu beharko lirateke: erakundeek zaintzaren pribatizazioan duten zeregina; emakume arrazializatuen borroka, haiek baitira Getxo eta beste udalerriko etxeetan zainketa eta garbiketa lanak sostengatzen dituztenak; edo nola beteko ditugun «zaintza erdigunean» bezalako leloak. Bide luzea izango da, akordio sozial batean sakondu nahian. Izan ere, guztiok benetako aldatetarik nahi ditugu lehenbailehen, zaintza eredu publiko batean denon bizitzak lehenesten dituzten neurriekin.

M8 hau beste urrats bat izango da botere-egiturak iraultzeko, zainketen despribatizaziorantz jotzeko eta elkartasun-sareak ehuntzen jarraitzeko.

Getxo antiarrazista

ARANTZA GUTIERREZ PAZ Polimilitante feminista



Martxoaren 21a Arraza-bereizkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izendatu zuen NBEk. Aldarrikapenen agendan markaturiko data da batzuentzat; makillaje edo itxurakeriarako aitzakia, berriz, administrazioentzat, beren burua antirrazizatzen duten horientzat ere.

Ez dut ukatuko Zurrumurik Ez egitasmotik Getxo antiarrazista izendatzera urrats kualitatiboa dagoela, benetako asmoen adierazpena. Baina ez da nahikoa. Ez da nahikoa gurera datozenen harrera 3. sektoreko erakundeen eskutik uzten bada; ez da nahikoa abegia herritarren elkartasunaren gainean zamatzen denean (eta eskerrak, elkartasun-sare handia dagoela); ez da nahikoa aterpeetan lekurik ez egoteak pertsona batzuk kalean lo egitera behartzen dituen; ez da nahikoa bizikidetzan sortzen diren arazoaren erantzun bakarra poliziala bada; ez da nahikoa migrazio-teknikoaren hutsunea betetzen ez denean...

Asko esan daiteke Hego globaleko herritarrak Ipar globalera bultzatzen dituzten faktoreez: gerrak, baliabideen ustiapena, ideologia, sexu-identitateagatiko jazarpena... Hemen daudela, ezin gara horien atzean ezkutu ezer ez egiteko, gure erantzukizuna ez balitz bezala. Asmoetatik harago, erabil dezagun efemeridea kalera atera eta benetako politika antiarrazistak exijitzeko.

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Ura zara eta euria erruz botatzen ari du asteroan. Nahiz eta zure elementua izan, ez zaitez konfiatu, eraman beti soinean aterkia!



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Azken aste-akabuetako ajeek zure bizitza birplanteatzera eraman zaituzte. Ez hartu erabaki garrantzitsurik lo egin barik!



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Denbora luze igarotzen duzu sarean katutxo bideoak ikusten... Eguna zaitzez azken berrietaz TikTokeko @hiruka_eus profilagaz!



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Hilabete honetan espero ez zenuen lagun batek traizionatuko zaitu. Izan argi zeintzuk diren zure mugak.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure bizitzaren inguruan dituzun espektatibek itotzen zaituzte. Zentratu orainean eta epe-laburrera eman ditzakezun urratsetan.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Badakizu azken aldian gelditzen ari zaren pertsona horregaz gauzak argitu behar dituzula, ez atzeratu gehiago elkarrizketa.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Egunero berandu altxatzen zara eta gosaltzea ere ahazten zaizu. Gogoratu egunaren hasierak zure egun osoa baldintzatu dezakeela.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Atzazalak jateari uzteko momentua heldu da. Erreparatu zein momentuetan egiten duzun eta aditu zure gorputza ohitura hori betiko uzteko.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Burokraziak antsietatea eragiten dizu, baina are okerragoa da zain dituzun paper horiek ez betetzea. Ongi etorri helduarora!



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Astean boligrafo gehien galtzen dituen pertsonaren errekorra hautsi duzu, zorianak! Eta kutxatila bat erosten baduzu?



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Egun hauetan dituzun gauza material batzuk askatuko dituzu. Hasieran pena eman arren, ondo etorriko zaizu, ikusiko duzu.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Aldaketak besarkatzen aspaldi ikasi duzu. Orain ikasitako guztia praktikan jartzeko momentu da. Bide onetik zoaz.



Hastear dago...

Taldeen arteko lehiaketa

12-18 urte bitartean badituzu, 3 lagunez osatutako taldea sortu.
Eman erruletari, galderak ondo erantzun eta irabazi puntuak zure taldearentzat.

Getxoko bi talde onenek,
**lehengoak tableta eta txapela
bigarrenak belarritakoak irabaziko dituzte**

eta talde irabazlea final handirako sailkatuko da



Izena emateko epea irekita!!

Aplikazioa berriztu dugunez, berriro erregistratu behar duzu



Izen-ematea:
otsailak 26-martxoak 14



Talde lehiaketa:
martxoak 18-apirilak 17



Aurrez aurreko finala:
apirilak 26

gurot.eus



Getxo
bizi ezazu

Ikerne Mendieta Uskola Twerk irakaslea

«Aurreiritzi asko nituen, baina twerka dantzatzean, guztiak erori zaizkit»

Getxoko Emakumeen Jabekuntza Eskolan twerk ikastaroa gidatzen du Ikerne Mendieta Uskola dantzariak. Twerkaren berezitasuna «lurrarekin» duen konexioa dela dio.

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

Dantza garaikidean formatua eta psikopedagogian aditua, Ikerne Mendieta Uskolak barrenetik gozatzen du twerk dantzaz. Kasualitatez egin zuen topo dantza honegaz: garai luze batez Cassamancen (Senegal) ikasten eta bizitzen egon zen, eta, bertan, bere gorputzean zerbait esnatu zela nabaritu zuen. Harrezkero, twerk klaseak jasotzen eta ematen ibili da leku ezberdinetan.

Zein da twerkaren sorrera? Hiru adar nagusi ditu: afrikar dantza tradizionalak; hip-hop edota dantza urbanoak, batez ere, New Orleansen eta Atlantan; eta *strip-dance* edota klubetako dantza sentsualak. Sorrera, alabaina, afrikar dantza tradizionalan dago, baita afro-amerikarretan ere. Halaber, gogoratu behar da errepresioari erdiko atzamarra ateratzeko bide gisa ere sortu zela dantza hau. LGTBIQ+ komunitateek dantzatzeko zuten euren zapalkuntzatik ihes egiteko; euren gorputzetik adierazten zuten kokoteraino zeudela eta euren gorputza euren zela.

Nola definituko zenuke twerkinga? Bizitasuna, poztasuna eta energia ematen didan dantza da. Afrikar dantzetan oso garrantzitsua da lurra, beraz, beti gaude lurrera tolestuta eta aldakak astintzen. Horrek konfiantza, indarra, sustraitzea eta errotzea ematen ditu. Aldi berean, pizten digu erdiguneko bizi energia edota sua, aldakan dagoena: sexualitatea, gozamina, desioa, jolasa, indarra... Gainera, komunitatean egiten den dantza da, kaleko dantza soziala da, hain zuzen.



Getxoko Jabekuntza Eskolan lau twerk saio ematen dihardu Mendieta. HODEI TORRES

Zoru pelbikoa

«Egia da emakumeei bereziki onura egiten diela twerkak zoru pelbikoaren lanketan. Oso modu organikoan lantzen du eta ez da batere agresiboa. Eskola batzuetan haurdun dauden emakumeekin twerka egiten dute zoru pelbikoa malgu eta indartsu mantentzeko»

Twerkingaren inguruan beti egon da estigma handia. Zergatik uste duzu daudela hainbeste aurreiritzi? Hasieran, aurreiritzi asko nituen dantza honekin, baina egin dudanean, guztiak erori zaizkit. Jatorria eduki behar dugu kontuan: beltzen eta afrikarren mundua, hip-hop eta strip-tease klubak. Sorburu hori gogoan izan behar dugu, bestela, oso erraza da bideo-klipetan eta sare sozialetan jasotzen dugun irudi sexualizatu eta estereotipatua izatea. Pop musikarekin eta reggaetoiarekin, twerkitik heltzen zaigun irudia da gorputz zuri eta normatiboa. Eta hori da twerkaren zati bat, ez guztia. Gauza gehiago daude.

Gizonezkoak ere daude twerk munduan? Beraz, dantza soziala eta herrikoia da, kalean egiten dena. Beraz, egiten dute dantza gazteek, nagusiek, umeek, gizonek, gorputz argalek, lodiek, generotik haratago doazen identitateek... Azkenean, gure gorputzak duen indarrarekin konektatzeko teknika bat da, eta hori denontzako da. Halere, egia da emakumeei bereziki onura egiten diela zoru pelbikoaren lanketan. Oso modu organikoan lantzen du zoru pelbikoa, eta ez da batere agresiboa. Halaber, eskola batzuetan haurdun dauden emakumeekin twerka egiten dute zoru pelbikoa malgu eta indartsu mantentzeko. ◀

Ibilki mendi-taldea Gizarteratzea mendizaletasunaren bitartez

«Bizikidetza eta elkar ezagutzea da gure gakoa»

Berriaren Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketako lehen saria jaso du Christian Rodriguezek, Ludi Vigueragaz batera, Ibilki mendi-taldearen izenean. Hala, egitasmoaz gehiago jakin gura izan dugu.

IKER RINCON MORENO ▶

Desgaitasunen bat duten hiru pertsonagaz batera, Argentinako Andeetara bidaia egin zuten Getxoko Ibilki mendi-taldeko zortzi kideek 2022ko azaroan. 6.000 metroko mendi bi igotzen saiatu ziren, hango X Mas Inclusion elkarteagaz batera. Protagonistek diotenez, igoerari baino, talde bien bizikidetzari eman zioten garrantzia gehien, eta, espedizio hartan jazotakoak kontatu guran, horretan bizi izandakoen kronika egin zuten Christian Rodriguezek eta Ludi Viguerak, lehenengoak idatziitakoak bigarrenak euskarara ekarrita. Berriaren Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketara aurkeztu zuten lana, baita irabazi ere. Rodriguezek gogoratzen duenez, Viguerak proposatu zion norgehiagokara aurkeztea, Ibilki egindako lana gizarteratzea garrantzitsua zela iritzita.

Getxotik, Rodriguezegaz batera, Ruth De la Hera batu zen espediziora, besteak beste. Biek gogoratzen dutenez, pandemiaren ostean etorri zen Argentinarako bidaiaren aukera. Orokorrean, Bizkaian eta inguruetan egiten ditu Ibilki irteerak, baina, Marokora eta Guatemalara ere egin izan dituzte bidaiak, «betiere tokiko elkarteekin harremanetan». Pandemian, berriz, egokitutako kirola sustatzen zuten Buenos Aireseko X Mas Inclusion elkarte getxoztarraz jarri zen harremanetan, «mendi-irteerak ere jorratu nahi zituztelako». Hala, Rodriguez elkarrizketatu, eta etorkizunean zerbait elkarregaz egin behar zutela adostu zuten. Esan eta egin. 2022ko uztailean, argentinarrakaz harremanetan jarri eta azarorako bertan egongo zirela hitzartu zuten. Espedizioa antolatu, eta Andeetara egin zuten bidaia.

De la Herak gogoratzen du oso ondo moldatau zirela bi taldeak, izan ere, horixe izan zen haien helburua: elkarbizitza. Ibilki men-



Christian Rodriguez eta Ruth De la Hera, Ibilki taldeko kideak. HO DEI TORRES



Ikusmen-urritasuna duen pertsona bat bere kideak hanketan dituen zinta islagailuak jarraitzen, Hernio mendian, Gipuzkoan.



Irteeretan adin guztietakoek parte hartzen dute, horietako batzuk desgaitasuna dutenak, etorkinak eta etxerik gabekoak.

di-taldearen funtsa eta muina ezberdinen arteko bizikidetzaren sustatzea da, «betiere batzen gaituen mendizaletasunaren inguruan». Ildo horretan, Ibilki kideek azpimarratzen dute mendi-talde «arrunt» bat direla, «beti batera joaten dena eta, ondorioz, denon erritmora egokituta ibiltzen dena». Hartara, askotariko pertsonak batzen dira taldera: etxerik gabekoak, bazterketa egoeran daudenak, etorkinak edota desgaitasunen bat dutenak. «Jende guztiarentzako taldea da hau, orokorrean».

Rodriguezek gogoratzen duenez, bere jaioterrian, Guatemalan, hasi zen mendi-irteera inklusiboak egiten, 90eko hamarkadan, gerra zibila amaituta. «Lagun asko itsu edo elbarri gelditu ziren gerraren ondorioz, baina mendira joaten jarraitu nahi zuten, aurretik bezala. Hala, naturaltasun osoz, beharrezkoa zenean ere, gurpildun aulkiak hartu eta 4.000 metroko mendiak igotzen hasi ginen». 2007an, berriz, itsuen eta gorren elkarte sortu zen han, eta horregaz elkarlanean, mota horretako irteerak antolatzen hasi zen. 2009an, berriz, Euskal Herrira migratu, eta mendiko gida titulua aterata, Guatemalan hasitakoari jarraipena ematen hasi zen hemen, bazterkeria egoeran zegoen jendeagaz batez ere. 2015erako, berriz, Ibilki sortu zuten eta, ordutik, aste-akaburo irteerak antolatzen ditu, askotan, inguruko elkarteak elkarlanean. ◀

Nahikoa al da emakumeen presentzia eremu publikoan?



IZARO AZPIROZ
TOLOSA

Emakumeak ikusten dira, baina, gizonaren presentziagaz alderatuta, oso gutxi. Esaterako, goi-mailako karguetan ez dago ia emakumerik. Hala, botere gehien duten figurak beti dira gizonezkoak. Emakume erreferente gehiago behar ditugu, modu horretan, ahotsa guri emateko.



JARE ANSOATEGI
ZARAUTZ

Telebistan, adibidez, gero eta emakume gehiago ikusten dira, baina gizonekin konparatuta, ez daude hainbeste. Oraindik bultzada handi bat eman behar zaio gure presentziari eremu publikoan. Horregatik, gure figurari eta guk sortzen ditugun gauzei ikusgarritasuna eman behar zaie.



JULI CORRÉ
ARETXABALETA

Uste dut urteak pasa ahala emakumeek gero eta leku gehiago dutela eremu publikoan. Hala ere, oraindik ez da nahikoa eta asko dago egiteko eta borrokatzeko. Nahiz eta kiroletan, politikan edota artean egon, uste dut ez zaiela garrantzi handirik ematen gaur egun ere. Beraz, gauzak aldatu behar dira.



HAIZEA ASANTA
GASTEIZ

Eremu publikoan emakumeak sexualizatzeko joera dago, eta telebistan agertzeko fisiko normatibo bat izan behar duzu foku apur bat izateko. Gizonezkoak, ordea, ez dira ederrak izan behar euren hitzak kontuan hartzeko. Telebistan ikusten ditudan aurkezle gehienak gizonak dira, esaterako.



PAULA ANGULO GONZALEZ
BILBO

Ondo dago, baina oraindik ikusgarritasun gehiago eman beharoko litzaiguke, lan gehiago egin beharoko litzateke benetako berdintasuna lortzeko. Hori, soldata-arrakala bezalako kontuetan nabaritzen da batez ere; adibidez, kirolarien kasuan, emakumeek gutxiago irabazten dute.



MODESTO MARIN
LUYANDO

Badirudi apurka-apurka badoala hobetzen, baina oraindik ez da nahikoa, presentzia gehiago izan beharoko luketela uste dut. Biztanleriaren erdia emakumeak dira, eta gizonon lana ere bada toki gehiago uztea beraiei. Legeak ere egin dituzte horretarako, baina kultura kontu bat ere badela uste dut.



IRATI TRIANA
BERANGO

Nire ustez, ez. Adibidez, komunikabideetan kirolari edo kulturari buruz hitz egiten denean, askoz garrantzi gehiago ematen zaie gizonezkoek egiten dutenari emakumeoi baino. Guk ere praktikatzen dugu kirola eta egiten ditugu gauzak, baina asko falta da bien arteko benetako berdintasuna lortzeko.



MAITANE LOPEZ
DONOSTIA

Ez da nahikoa, eta esan behar dut emakumeon presentzia areagotu den arren, kirolean, adibidez, gizonen garrantzi askoz gehiago ematen zaiela. Kulturaren esparruan ere erreferente gehienak gizonezkoak dira eta, emakume artista oso onak egon arren, bigarren planoan geratzen dira; bilatu behar ditugu.



Gernikako zuharitza

Ez bedi inor sumindu izenburua irakurrita, nire asmoa ez baita «euskaldunen artean guztiz maitatua» den **arbola** santuari jatorri izena aldatzea, Iparragirre bardoarekiko begiruneagatik beragatik baino ez bada ere. Arbola hitza ere ez dut kritikatu gura, behinola Jorge Luis Borges idazle argentinarrek ironiaz egin zuen moduan: «*Que raro ese idioma tan antiguo y con tan pocas palabras. Para decir árbol dicen arbola*». Haren harridura edota ezjakinkeria apur bat ilustratze aldera, gogoeta filologiko xumea egitea dut xede, euskaraz berba bat baino gehiago baitaukagu arbolari deitzeko.

Zuhaitza da egun maizen eta zabalen darabilgun izen generikoa sustraiak, enborra eta adaburua dituen landareari deitzeko. Morfologia aldetik hitz elkartua da zuhaitza, itxuraz **zuh**-erroaz eta **a(r)itza** hitzaz osatua. **Zuharitz** ere agertzen da XIX. mendean. **Zuh**-errotik **zura** hitza sortu bide da, eta egurra esan nahi du. Gaur egun, berriz, **haritza** zuhaitz mota bat da, *Quercus robur* latinez (Gernikako zuhaitz mitikoa mota horretakoxea dugu), baina lehenago-lehenago zuhaitza esan nahi ei zuen, orokorrean.

Zuhaitz berbaren erro bera duten **zuhamu** eta **zuhain** hitzak ere hortxe dauzkagu, bi-biak inoiz zuhaitza adierazteko erabiliak. Baina segi dezagun paseo diakronikoan.

Azkueren hiztegiara jota, zuhaitza adierazteko, bizkaiera arkaikoan erabiltzen bide zen **abe** hitza topatuko dugu. Gaur egun, baina, **habe** hitza kargei eusteko egitura-elementu horizontalari deitzen diogu, eta **zutabe** (**zut** + **habe**) zutikako euskarri bertikalari. Hitzen arteko lotura agerikoa da.

Bestetik, bai **abe**, bai **ondo**, bai **atze**, bai **a(r)itz** eta bai **arbola** hitz edota atzizkiak historikoki zuhaitz mota zehatzak izendatzeko hitzen bigarren elementu modura azaldu ohi dira, gehienetan fruituaren izenaren ondoan. Hor ditugu **mahatsabe**, **limoiondo**, **marugatze**, **sagarraraitz**, muxika-arbola...

Gatozen orain arbola berba aztertzeraz. Arbola hitza latinetik hartu dugu (**arbōr**, **-ōris**), baina ez dakigu latinak nondik hartu ote zuen (hor duzue erronka, etimologistok!). Idazle klasikoetara jorik, Etxeparek **zuhamu** zerabilen XVI. mendean; Axularrek **zuhaitz** XVII.ean; XVIII. mendeko Joanes Etxeberri Sarakoa, aldiz, **arbola** hitza erabiltzen hasi zen. Datu bitxia: XX. mendearen lehenengo erdialdean hego Euskal Herrian bertsolariek baino ez zerabilten arbola hitza. Bigarren erdian orokortu egingo zen haren erabilera.

Eta gaur egun zer? Gaur egun arbola, gehienbat, **fruta arbola** (pikondoa, madariondoa, gerziondoa...) adierazteko erabiltzen dugu, eta orokorrean zuhaitza darabilgu.

Euskarak ez du hitz gutxi, baina dituenak askatasunez erabili behar ditugu. Eta Otxandioko Felipe Arrese Beitia olerkaria parafraseatuz, «libertadea, baina, Gernikako Arbolapekoa!». ◀

Berba azoka

Arbola

Landare iraunkorra, lurretik halako garaiera batean adarkatzen den zurtoin zurezkoa duena.

Zuhaitz

Arbola, zuhamua.

Zuharitz

Zuhaitza (arkaikoa); XIX. mendeko Hiribarren idazle lapurtarraren hiztegiari agertzen da.

Zur

Zuhaitz eta zuhaixken enbor, adar eta sustraiak osatzen dituen gai izpitsu eta trinkoa, bereziki lantzeko eta gauzakiak egiteko erabiltzen dena.

Haritz

Pagoaren familiako zuhaitza, hosto erorkor eta gingildunak dituena eta fruitutzat ezkurra ematen duena.

Zuhamu

Zuhaitza.

Zuhain

Zuhaitza. Baita ganadu-bazka ere.

Abe

Zuhaitza (arkaikoa).

Mahatsabe

Mahatsondoa.

Marugatze

Masustondoa.

Sagarraraitz

Sagarrondoa.

Fruta arbola

Frutak ematen dituen zuhaitza.



Hirukira olgetan

© GARBINE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO SOLUZIOAK



Sudoku

Izan ere, zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gehienetan nazkagarria izaten da. Bete itzazu sudoku honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




Aldea dago

Gaixoa gure Maripurtzil! Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak «mehatxu» egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 11 dira guztira.

QHQMWWWA,
YVAMWWWAYV!
WWWUSQHQTE DUTWWW
SYVEKUQHQLAKOYV
AURWWWKIKUNYVTZA
EGYVNGO
DUQHQDALAWWW
QHQGALRWWW

WWWGALRYVKO
QHQLMEWWWEK
YVEZ DAKIYVTEQHQ
ZER YVASMAQHQTU
NAGUWWWSIEN
ARQHQRETA
BEREQHQA-
NATZEWWWKO




Mezu gordea

Gure aspaldiko arbasoek ez zuten guk bezala hitz egiten, ez horixe! Baina bada truku bat ama-alaba hauek esaten ari direna ulertzeko. Ezaba itzazu WWW, YV eta QHQ guztiak eta hortxe agertuko zaizkizu esaldiak.



Labirintoa


Ai ene, Pelloziri sutan dago. Bere txakurrak —Alaitz du izena— sekulakoak egin dizkio: pilota hautsi (1), madalenak lapurtu (2), izozkia lurrera bota (3) eta etxean kaka egin (4). Lagun iezaiozu txakur bihurri hori harrapatzen, urrutira ospa egin baino lehen. Zoaz laukiz lauki, aipatutako segida errespetatuz. Banan-banan aurreratu behar dituzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Gero, pasatu dituzun laukietako hizkiak bata bestearen atzetik jarri eta esaera bat argetuko zaizu. Idatz ezazu:



Itzala

Pelloziriren laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpera dela uste al du?! Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra aterata zaio gizajoari, eta, jakina, su hartu dio...

Zein da bere itzala zuzena?



Ane Lindane Umoregilea eta bakarrizketalaria

«Gune okupatueta jaiotzen eta errotzen da kultura gure herrietan»

TESTUA: IKER RINCON MORENO • ARGAZKIA: IGOR MELTXOR ▶

Definitu zeure burua berba bitan. Umorea eta haserrea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Las locas aventuras de Ane Lindane.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat? Gelakide batek behin botaka egin zuen, eta, koloratzaile urdina zuen gozokiren bat jan omen zuenez, urdin koloreko botaka egin zuen. Liluratuta geratu ginen okari begira, eta, une hartan, jolastokiko monitorea etorri zen. Botaka miresten ari gine-la ikusita, «hala, merendola!», esan zuen bere erretzaile amorratuaren ahots kaxkarrarekin. Garai hobeak ziren...

Duzun ohitura txarren bat? Ondo jatea eta kirola egitea.

Zein da zure ametsetako bat? Toki publikoetan, eta mundu guztiaren aurrean, kaka egiten dudala egiten dut amets sarritan.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera? Itsasontzi bat duen eta itsasontzia gidatzen dakien norbait.

Gorroto duzun topikoa? Euskal Herrian gutxi ligatzen dela; matxismo eta euskalfofia hutsetik jaiotzen den topikoa da. Baina, oro har, edozein topiko euskalfofo.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago? Bai; LSD-a non lor dezaket?

Zer hutsegite ez zenuke sekula barkatuko? Batukadak gustuko izatea.

Zerk ematen dizu beldurra? Iker Jimenez bezalako ma-muek.

Parrandarik politenak, non? Astikan, Erandion okupatu-ta dauden baserri batzuetan.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian? Eliza katolikoa desagertu dela.

Zertan ez zenuke jardun gura? Polizia.

Eguna ala gaua? Eguna eta gaua, hau da: gaupasa.

Non gura zenuke bakarrizketa bat egin? Euskal Herriko gaztetxe guztietatik bira bat egitea gustatuko litzaidake. Gune okupatu eta autogestionatueta jaiotzen eta erro-tzen da kultura gure herrietan. ◀



Laburrean. Ane Lindane (Bilbo, 1988) izen artistikoagaz ezaguna den umoregile eta bakarrizketalariak *Hasta la potxola me tenéis* (Zorrotz, 2023) liburua argitaratu zuen iaz. Horren bitartez, egileak dioenez, askotariko gaiak jorratu ditu, hala nola feminismoa, etxebizitza, amatasuna, lodifobia eta umorearen mugak. Ildo horretan, liburua barre egiteko helburua duela azpimarratzen du, baina baita haserretzeko eta hausnartzeko ere. Horrez gainera, Ane Lindanek, mikrofonoa eskuetan duela, *Despotorre* umorezko saioa zuzendu eta aurkeztu du Raquel Torres (Madril, 1988) kideagaz batera. Horrez gainera, besteak beste, kritika zorrotza egiten duten umorezko askotariko bideoak argitaratzen ditu bere sare sozialetan.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Karpin fauna ezagutu gura?

Karrantza Haranean, naturaren erdian, panterak, katamotzak, oreinak, kanguruak eta guanakoak zelatan daude zure zain. Zentro hori bisitatu gura duzu? Sarrera bikoitzak ditugu zuretzako!

Zozketan parte hartu gura baduzu, apirilaren 7a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Loraldia Terminala ekitaldia

Loraldia Festibalaren parte izango diren hiru ikuskizun ederrentzako sarrera bikoitzak ditugu zure zain! Martxoaren 22an izango dira, 19:30etik aurrera, La Terminal aretoan.

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 18a (astelehena) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Kutxartean antzezlan

Martxoaren 24an, domekan, Teatro Paraisoren obra eder honek Getxoko Muxikebarri Antzokia bisitatuko du. Arrastiko 18:00etan hasiko da, eta sarrera bikoitzak ditugu zuretzako!

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 18a (astelehena) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna


Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



23. Korrika Uribe Kostan



LEMOIZ

MARTXOAK 17

Armintzako Kultur Etxea
12:00 "Oihaletxea" dokumentala
13:00 KM informazioa eta tailerrak
18:00 Ipuin musikatua

URDULIZ

MARTXOAK 15

Antsonekoa plaza
17:30 Korrika aurkezpen jaia
18:30 "Gora bihotzak" Eidabe
20:00 Triki-poteoa!

GETXO

MARTXOAK 9

Muxikebarri
19:30 Txalaparta (Kukai)

MARTXOAK 12

RKE / Azebarri
9:30 / 11:00 / 17:30
"Korrika abestien ibilbidea"
Oier Garmendia

MARTXOAK 15

Santa Eugenia plazatik
19:30 "Elektrotxuffa"

MARTXOAK 16

Malakate / Kabia
KORRIKA JAIALDIA

MARTXOAK 20

Itzubaltzeta
Zasi Eskola giroa berotzen!

GORLIZ-PLENTZIA

MARTXOAK 15

Gorlizko Udaletxe plaza
17:00 Korrika aurkezpena
Korrikaraokea, dantza, kalejira...
20:00 "Lehian" Iberrebarrin

MARTXOAK 21

Plentziako Goñi Portal
18:00 "Piztu! EmakumeON energia" Eidabe

SOPELA

MARTXOAK 14

Kurtzio KE
19:00 "Bizkarsoro" filma

MARTXOAK 21

Udaletxea
06:30 Armosu kolektiboa
19:00 Bertsoptoea
Etxahun Lekue eta Inazio Vidal

LEIOA

MARTXOAK 13

Musika eskola / Anbigu
10:00 / 19:00 "Ispiluak"
Dorleta Kortazar

MARTXOAK 15

Euskal etxeen plaza /
Udaletzeko frontoia
KORRIKA EGUNA

MARTXOAK 15

Kultur Leioan
19:00 "Bizkarsoro" filma

BARRIKA

MARTXOAK 16

Futbol zelaia / frontoia
12:00 Pankarta eta peto tailerra
13:00 Herri-korrika
13:30 Txalaparta tailerra eta
hamaiketakoa!

BERANGO

MARTXOAK 14

Berango-Merana eskola
16:30 Umeentzako jarduerak

MARTXOAK 17

Frontoi tabernan
12:30 Korrika jaia
Trikitilariak, talogileak,
musika...

ERANDIO

MARTXOAK 9

Irailaren 23a plaza
13:00 Aurkezpena
15:00 Bazkaria
18:00 Diskorrika
20:00 "Matraka"
elektrotxaranga!

MARTXOAK 16

Josu Murueta plaza
13:30 "Gaur Argi"
erromeria

MARTXOAK 17

Merkatu zaharra
19:00 Baginaren bakarriketak

MARTXOAK 21 OSTEGUNA




5:24

1698 - Lemoiz	1718 - Getxo
1699 - 5:24	1719 - 7:35
1700 - Gorliz	1720 - 7:42
1701 - 5:43	1721 - 7:48
1702 - 5:49	1722 - 7:54
1703 - 5:56	1723 - 8:01
1704 - Plentzia	1724 - 8:07
1705 - 6:08	1725 - 8:13
1706 - Barrika	1726 - 8:19
1707 - 6:21	1727 - 8:24
1708 - Urduliz	1728 - 8:30
1709 - 6:33	1729 - Leioa
1710 - 6:39	1730 - 8:44
1711 - 6:46	1731 - 8:51
1712 - Sopela	1732 - 8:57
1713 - 6:59	1733 - 9:03
1714 - 7:06	1734 - Erandio
1715 - Berango	1735 - 9:14
1716 - 7:17	1736 - 9:20
1717 - 7:23	1737 - 9:23
	1738 - 9:29

Baietz
11.000
Korrika
Laguntzaile!

Izan Korrika laguntzailea

EKIN KORRIKARI!
15 euroren truke,
garantziarekin korrika duzuz
AEKren euskaltegiak laguntzea
Horrez gain, pina eta abantailak
buruzko informazioa jasoko
dituzu.



Uribe Kostak. AEK
EMAN IZENA!
Leioa · 94 464 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo · 94 430 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus



23.korrika

